

## IRITZIAK PLAZARA

Herriko plaza eraberritzeko herri galdeketa egingo du Udalak. Hiru galdera erantzun, eta horien artean oinezkotzearen aukera 20



**BADAKIZU ZERGATIK AZTERTZEN DUDAN NIRE ENTZUMENA GAES-en?**

“Egunen batean dena errepika diezadatela saihestu nahi dudalako”



[www.gaes.es](http://www.gaes.es)

\* konsultatu itzazu ezagueriak zure zentroan.

# MILAR

## LARRAMENDI

### ELEKTRO & SUKALDEAK



**MILAR**  
ZURE AMETSETAKO SUKALDEA  
LA COCINA DE TUS SUEÑOS

SUKALDEETAN ZER NAHI,  
HORIXE DAUKAGU ZURETZAT

ZURE ETXERAKO BEHAR DUZUN GUZTIA DAUKAGU, 10.000 ERREFERENTZI BAINO GEHIAGO  
ETA PREZIO EZIN HOBEAN. EGUN BATETIK BESTERA EKARTZEN DUGU.

AZKOITIA Xabier Munibe, 11 / Julio Urkijo, 16 Tel. 943 85 18 97 [www.milarlarramendi.com](http://www.milarlarramendi.com)



MAIATZAREN 31tik UZTAILAREN 31 arte

**ESKAINZA IZUGARRIAK!!!**

ZATOZ GURE ERAKUSKETARA!



## uztarria

**Argitaratzailea.** Uztarrria  
Komunikazio Taldea. Azpeitia  
**Egoitza.** Perez Arregi plaza 1, behea,  
(Azpeitia, 20730)  
**Telefonoa eta faxa.** 943 15 03 58  
**Posta elektronikoa.**  
uztarria@uztarria.com  
**Posta kutxa.** 227, Azpeitia  
**Lege gordailua.** SS-860/2000  
**Zenbakia.** 162.a (2014ko ekaina)  
**Urtea.** XV.a (1999ko azaroan sortua)  
**Maiztasuna.** Hilabetekaria  
**Diseinua.** Eregi Komunikazio  
eta Euskara Zerbitzuak  
**Publizitatea.** 685 730792 /  
uztarria@uztarria.com  
**Bazkidetza.** 943 15 03 58  
**Tirada.** 2.500 ale hilerro  
**Inprimategia.** Leitzaran Grafikak  
**Azaleko argazkia.** J. Frantzesena  
**Webgunea.**  
[www.uztarria.com](http://www.uztarria.com)

**Uztarrria herri aldizkariaren  
laguntzaileak** (erakunde  
publikoak)



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Euzko Jaurlaritzaren  
Gobernua




azpeitia  
udala

**Uztarriak  
Bai Euskarari**

**Oharra.** Uztarrria  
Komunikazio  
Taldea ez du  
bere gain hartzen  
herri aldizkariaren  
adierazitako  
esanen eta  
iritzien  
erantzukizunik



## 2014KO EKAINEKO UZTARRIA ALDIZKARIAN ZER?



### iritzia

**Inkesta.** Zer iruditzen zaizu herrian zine emanaldirik ez egotea udan? **13**

### mamia

**Jesus Etxarte.**

Hainbat lan egin du Bartzelonan bizi den argazkilariak **04**  
**Klik!** Zilarrezko bitxiak egiten dituzte Zilargi enpresan **16**  
**Pobrezia energetikoa.** Zenbait herritarrek aukeratu egin behar dute etxea bero eduki edo jatearen artean **24**

### jakiteko

**Atzera begira.**

Kartzela zaharraren 125. urteurrena **34**

**Ba aL dakizu** herriko anbulatorioan beste pediatria bat jarri eta orain hiru ari direLa zerbitzua ematen? **Uztarrria**

## egin zaitez bazkide Uztarrarian




943 15 03 58

**Herri aldizkariak gain, Uztarraren produktuak ere eskuratuko dituzu.** Uztarrria Komunikazio Taldeak orain arte **13 liburu, CD 1** eta **biografiak txikiak** atera ditu. Bazkideak baino ez ditu jasotzen, urteko kuota barruan.



**1.060** bazkide **30** euro dira gara Uztarrria Komunikazio Taldean; eskerrik asko denei.

**30** euro dira **urtean.** 110.000 euroko aurrekontua 2014an.



**Liburuxka biografikoak, oraingoz.** Julian Bereziartua, Leo Etxeberria, Valentina Agirre, Santi Lazkano, Amaia Garmendia, Enkarna Arregi, Iñaki Bergara, Bernardo Aizpitarte 'Kabra', Enrique Zurutuza, Maria Jesus Arregi

# JESUS ETXARTE

argazkilaria

## “Txikitan makina hark mundua ireki zidan”

Azken 30 bat urtean Bartzelonan bizi da loiolatar argazkilaria. Hainbat proiektu du esku artean, eta film batekin dabil buru-belarri. 📌 **Julene Frantzesena**

**L**oiolan jaio. Bilbon Arte Ederrak eta Ikus-Entzuzkoen ikasketak bukatu, eta Bartzelonara. Harrezkero bertan bizi da Jesus Etxarte azpeitiar argazkilaria, nahiz eta “urtean biz-pahiru aldiz” etortzen den Euskal Herrira. Loiola ondo gogoan du, eta oroitzapen “onenak, hurbilenak eta beroenak” etxeko atarian dituela aitortzen du.

Bartzelonan hainbat lan egindakoa da, baina orain “krisia sektore denetara iritsi dela” dio. Hala ere, “proiektu berriak” etengabe sortu behar direlakoan dago.

### Zer dela-eta hasi zinen argazkilaritzan?

Txikitan Kodak Instamatic 25 kamera oparitu zidaten gurasoek. Kameraren kaxaren leloak honela

zion: ‘Zuk botoia sakatu, eta beste guztia guk egingo dugu’. Liluratuta gelditu nintzen, eta makina txiki hark mundua zabaldu zidan. Argazkigintzarako afizioa nondik datorkidan aitari galdetu beharko genioke, baina zoritxarrez ezinezkoa da.

### Bartzelonak aukera asko eskaintzen al du argazkigintzari lotuta?

Hasieran modarekin lotura zuten argazkiak egiten nituen, baina merkatu hori oso aldakorra da. 1992ko krisia tarteko, pertsonaia ezagunen argazkiak hasi ziren indarra hartzen, eta argazki horiek zuten eskakizun handiena. Nik ere atera nituen horrelako argazkiak *Vogue* edo *Women* bezalako aldizkarietarako. Besteak

### ||| DATUAK |||

||| **Jaio.** 1961eko uztailaren 7an.

||| **Herria.** Azpeitia. ||| **Bizi tokia.** Bartzelona. ||| **Lanbidea.** Argazkilaria.

beste, Aiko Miyawaki, John Casablancas, Camaron de la Isla edo lan McEwan erretratatu nituen.

Bereziki prestatutako proiektu artistikotan ere jardundakoa naiz, eta hainbat erakusketa osatu ditut nire argazkiekin. Hala nola, 1995etik hona, Anberesen, Habanan, Madrilan, Bartzelonan nahiz Donostian izan dira zabalik nire erakusketak.

Bestalde, publizitate kanpainetan ere aritutakoa naiz. *Foto fija* kanpainetan, hain zuzen. Kanpaina horiek filmen grabazioetan egiten dira, gero argazki horiekin pelikula promozionatzeko.

Bartzelona hiri handia da, eta aukera ugari eskaintzen du.

### Hainbat lan egindakoa zara Euskal Herrian ere.

Arte Ederretako ikaslea nintzenen egin nuen aurreneko filma. Bertan, Ameriketako pop estiloa landu nuen; kolore askoko argazkiak, estudioko *flash*-ak kanpoko lokalizazioetan... Lan hura, zineko irakasle nuen Jon Intxaustiri aurkeztu nion, eta hurrengo egunean TVE-ko produktoreak eta Itoiz musika taldeko kide eta produktoreak ate joka nituen, errealizatzailer berrien bila zebiltzala eta.

Handik atera zen nire lehen bideoklipa, eta lehenengo disko azala. Izan ere, orduan egin nuen Itoizen *Musikaz blai* diskoare azala eta *Safari* bideoklipa. Azken



hori TVEko ekipoa erabilita grabatu genuen, baina programa batean pasatu eta hemengoaz zenez ez zela aproposa argudiatuz, baztertu egin zuten. Ez nuen proiektu haren inguruan ezer gehiago jakin. Badakizu, garai hartan Euskal Herria ez zen tropikala!

**'Galduta' liburuaren azalera egin zenuen.**

Bai, eta Juan Luis Zabalaen liburu hark gogoeta ederrak dakarzit burura. Liburu ederra da, prosa zoragarria, eta *tempo*-a erabiltzeko maisutasun handia du idazleak. Literatura onaren jarraitzailea baino ez naiz.

**Egun, zine zuzendari lanean ari zara 'Brossun City' film dokumentalean.**

Pauso logikoa eta naturala izan da zuzendari aritzearena. *Brossun City teaser* bat da momentu honetan. Intriga kanpainaren parte da, eta kapitala bilatzeko balio du formatu horrek. Aurrerapen bideo bat bezalakoa da.

**Finantzazio arazoak dituzue, beraz.**

Kultur proiektuen arazoa, historikoki, finantziazio falta izan da, eta gaur egun are gehiago.

**Sony Production Awards-en aukeratu zuten filmaren aurrerapena. Ez du jaso sariarik, baina hor egon zarete.**

Bitxia eta emankorra izan da sozializatzeko tresnek, Internet barne, eragin kultural positiboa izan dutela ikustea. Proposamen kultural berriei beste ate bat ireki zaie. Orain, dagokiguna da ondorioak kudeatzea eta hausnartzea.

“kultur proiektuen arazoa finantziazio falta izan da”

“gaur egun, post-ekonomiaren garaian, dena da zaila”

Biziki poztu nau gure lana aukuratu izanak eta munduan zehar ikusi ahal izateak. Oso gustura nago.

**Noizko bukatuko duzue filma?**

Filma *work in progress* dinamikarekin sartuz gero, *short cut* egitura duna izango da, eta pilotoarekin aurki hastekotan gara. Alegia, kapitulu desberdinak grabatuko ditugu, eta bakoitza hasi eta bukatu egingo da, azkenean denak elkar-tzeko.

**Xarxa1 elkartearen baitan ari zarete filmarekin lanean. Zer da proiektu hori?**

Xarxa1 Bartzelonako kultur talde bat da, eta egungo artista, artisau gisa ikusten du. Zentzumenen artisau moduan, hain zuzen.

Elkartearen helburua kultura, hezkuntza eta artea elkartzea da eta, horretarako, hainbat arlotako kideak bildu gara, zenbait instituzioren laguntzarekin.

**Zaila al da argazkilaritzatik edo zinematik bizitzea?**

Gaur egun, post-ekonomiaren garaian, eta gizarteak duen Erdi Aroko pentsamolde honekin, dena da zaila.

Honakoa zion Yves Smithek: “Edozein demokraziarentzat arriskutsua den pozisioa lortu dute ekonomistek. Zientifikoak ez diren prozedurak erabiliaz justifikatu ezin den boterea lortu dute”. Pentsatzeko era kritikoa da balio duen bakarra, eta hori da argazkilariak edota zinegileak behar duena.

Munduaren eta bizitzaren kontzeptu sakonak bizi izanak eta funtsezko esperientziek ikuspegi hobea ematen dute, kamera triste baten espezifikazioak ematen duena baino.

**Proiektu berririk ba al duzue eskuartean?**

Bai, proiektu berriak etengabe sortu behar dira. Etengabeko dinamikan murgilduta nabil, artisau lanetan. Gainera, kultur adierazpen berriei ateak irekita nago, bukaezina den espiral baten barnean. ✘

# Beste eredu bat

**M**aiatzaren 25ean, Europako Parlamenturako hauteskundeak izateaz gain, bazen gure herritik kilometro gutxira herri oso bat mobilizaturik zuen ekitaldi bat: Eibar-Alaves, Bigarren Mailako futbol ligako partida. Zorionez, Ipuruan izateko aukera izan nuen, nahiz eta Alavesen 'zale' gisa joan. Eibarrek irabazi zuen, baina ez dut partidaren kronika egiteko asmorik. Eibar Lehen Mailara igotzeak eragin dizkidan gogoetak partekatu nahi ditut.

Atsekabe eta esperantzarik ezaren mezuek etengabe bonbardatzen gaituzten garai hauetan, honelako berriek ematen duten indarrak ez du parekorik. Are gehiago, Cristiano Ronaldok Txapeldunen Ligan emandako kabernikola erakustaldiaren ondoren, bezperan, Lisboan, milioiak dantzan zebiltzanean. Bere ligako aurrekonturik baxuenarekin, eskal jokalarari ugari ohorezko hamaikakoan izanik, eta 1,7 milioi euroko inbertsioa egitera beharturik, armaginek Bixentek, Artetxek, Karmonak, David Silvak edota Gaizka Gari tanok lortu ez zutena erdietsi dute, egungo futbol munduan miraritzat kalifikatu den lortu. Baina, miraria da benetan? Ez horixe.

## Oinarrizko lau zutabe

Hainbat faktorek lagundu duten arren, kasu honetan esango nuke bizitzaren edozein eremutara eramanez daitezkeen oinarrizko lau zutabek ahalbidetu dutela gertakaria: egin nahi dena garbi edukitzea, taldekide guztien inplikazioa, konstantzia eta norbere buruan sinestea.

Ideiak argi edukitzea ez da soilik entrenatzailearen edo zuzendaritzaren meritua. Hori izan daiteke ideien motorra, euren erabakien arabera antolatuko baita taldea. Talde sendoa, orekatua eta borrokalaria, etsiko ez duena, eta ezaugarri bereziak dituzten taldekideak. Baina kideek euren egin behar dute ideia, sentitu, bizi eta, ondorioz, inplikatu. Hor dago ideia transmititzen duenaren balioaren



|||||||Hodei mendinueta|||

|||Eibar Lehen Mailara igotzeak eragin dizkidan gogoetak partekatu nahi ditut

isla. Ideiak eduki, baina ingurukoengana iritsi, partekatu eta ondorioen arabera berrantolatu ezean, jai dago. Hitz egin, entzun, eta bakoitzaren ezinbestekotasuna transmititu, rol guztiak beharrezkoak direla sinestarazi, eta horrela dela erakutsi. Horrek geldiezina egiten du edozein talde, bihotza ematen baitio.

Baina ez da nahikoa. Benetan ideia gartzeko, epe ertain eta laburreko helburuek etengabeko birprogramazioa behar dute, baita rolek ere; eta hori ideia iparroratz gisa hartuz soilik lortzen da, zer lortu nahi den etengabe gogoraziz, konstantzia izanez. Norbere buruan zalantza sortzen hasten direnean nora begiratu, erreferentzia komun bat falta bada, nekez mantenduko da baturik taldea. Eta ideia berehalakoan lortzen ez bada, lortzeko bidean bakoitza norbere esku dagoena egiten ari dela jakitea ere, harrotasunez lanean jarraitzeko arrazoi nahikoa bilakatzen da.

Horregatik, elkar loturik dauden lau zutabe horiek pertsonon edozein esparrutan erabilgarriak iruditzen zaizkit. Emaizak eta presak mugitzen gaituzten garaiotan, erabakiak eraginkortasunaren eta errentagarritasunaren menpe dauden munduan, beste eredu batek, beste bide batetik, emaitzak eman ditzakeela ikusteak, sekulako poz eta esperantza dosia ematen du.

Besterik gabe, zorionak Eibar, eta animo beste eredu batetik lanean ari zareten guztioi!✘





# LANTALDE PROFESIONAL BIKAINA IZEN-ABIZENEKIN



## ZERBITZU INTEGRAL AKREDITATUA

## ETENGABEKO ORDUTEGIA



Doctor **Antonio Murillo**

Hezur Birsorkuntza eta ehun bigunen Maneiuko Zuzendaria. **Lleidako Unibertsitatea eta Madril.**  
Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizentziatua. **Alfonso X.a Unibertsitatea. Madril.**  
Implantologia Masterreko Irakaslea. **Lleidako Unibertsitatea.**  
Kirurgia Masterreko Irakaslea. **Salamanca Unibertsitatea.**  
Unibertsitate Instituzioetako Irakasle gonbidatua. **Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean eta Bartzelona, Sevilla, Almeria, Lleida, Leon, Malaga... Unibertsitateetan.**

Doctora **Ainhoa Zulueta**

Odontologian Lizentziatua. **Euskal Herriko Unibertsitatea.**  
Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian, Periodontzian, Implantologian. **Leongo Unibertsitatea.**  
Diplomatua Aho Kirurgian. **Bartzelonako Unibertsitatea.**  
Hortz-Estetikan Diplomatua. **Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.**  
Hortz-Estetikan Diplomatua. **Autran Institutua, Bartzelona.**  
Etengabeko Formakuntza. **New York-eko Unibertsitatea.**  
Oklusioan Graduondoa. **Anibal Alonso Doktorea.**



Astelehenetik ostiralera:

**8:00**etatik **22:00**etara

Zapatuetan:

**10:00**etatik **14:00** etara

**Eibarko Dendarien Elkarte**  
ABANTAILA HANDIAK ELKARTEAREN TXARTELAREKIN ORDAINDUZ  
**Galdetuiguazu!**



**MUTUAK ETA ASEGUURAK**

GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN, CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMQ, SANTA LUCÍA, PREVISORA BILBAINA, AEGÓN/STONEBRIDGE, AVANTSALUD, PADL...  
**Galdetuiguazu!**



**IRAZABAL**

clínica dental

**FINANTZIAZIO BEREZIA**

Abantaila ekonomiko handiak eta finantziario aukera ezinhobeak. **GALDETU**

Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR - Tel.: 943 20 85 52 - www.clinicairazabal.com

# Bitartean, entzun musika

**E**zaguna da betidanik, diskoetxeek ez dizkietela laguntza gehiegirik ematen musika munduan beren lehen pausoak eman nahi dituzten taldeei. Zenbat artista geratu ote da bidean? Zenbat lan eta ilusio geratu ote dira zapuzturik azken laguntza hori ez delako iritsi?

Egia da musika talde bakoitza mundu bat dela, baina behin norbere kantu propioak sortutakoan denek ala gehienek nahi izaten dute euren lana disko batean ikusi.

Diskoien merkatuak, ordea, ez du funtzionatzen, ez behintzat duela urte batzuk funtzionatzen zuen bezala. Musika gehiena sarearen bidez kontsumitzen da eta CD formatuan kaleratutako disko bati etekin ekonomiko ateratzea gero eta zailagoa da, ia ezinezkoa dela ez esatearren. Diskoetxe batzuk bateratzen ari diren bitartean, beste batzuk atek itxi beharrean izan dira, eta orain arte bizirik mantentzea lortu duten horiek beste negozio mota batzuetan murgildu beharrean izan dira euren diru iturriak ziurtatzeko.

Guzti horrek non eta nola uzten ditu musika taldeak? Aspaldi esan zuen batek, "Euskadin rock & rollak ez du dirurik ematen". Lehen ez dakit, baina orain behintzat ez dira asko izango Euskal Herrian bizitzeko adina diru lortuko duten musikariak. Egia esan, diskoen salmentetako irabaziak ez dira abeslari edo talde baten diru-iturri bakarrak. Kontzertuak ezkainiz ere eskuratu ahal dute dirurik, baina alor hori ere nahikoa geldirik dago azken bolada honetan. Gai guztietan bezala murrizketak nagusi dira hemen ere eta, nahiz eta oraindik ekitaldi asko antolatzen diren, berauetarako dagoen dirua gutxiago da.

## Banaketaren iraultza

Ez orain eta ez lehen, inoiz ez da erraza izan disko bat kaleratzeko behar diren laguntzak eskuratzea.

Diskoetxeek 'produktu errentagarri' bat ikusten zutenean euren apustua egiten



||||||| **asier sustaeta** |||||

||| Ez orain eta ez lehen, inoiz ez da erraza izan disko bat kaleratzeko behar diren laguntzak eskuratzea

zuten, gero diskoaren salmentekin etekinak eskuratzeko. 'Produktua' horren segurua ez zenean, taldearekin banatzen zituzten ekoizketaren eta banaketaren gastuak. Gaur egun, disko fisikoaren salmentek dirurik ematen ez dutenez... Gastuak %100 diskoetxearen kontura dituen diskorik ia ez da ekoizten.

Beraz, guzti horrek bultzatuta eta gaur egun teknologiak ematen dituen laguntzekin, talde gehienek autoekoiztutako lanak kaleratzen dituzte. Grabaketa prozesuan ere aldaketak izan diren arren, banaketan eta diskoaren zabalkundea egiteko moduean gertatu da iraultza haundiena. Gaur egun, badira diskoak formatu fisikoan kaleratzen ez dituzten taldeak, edota modu sinboliko batean, sorta txiki bat bakarrik kaleratzen dutenak. Horren beharrik ez baitago, entzuleengana iristeko.

My Space, Spotify, Youtube... bezalako webguneen bidez, ordainduta edo dohainik, deskargen bitartez, euren lana munduaren beste

puntan ezagutarazi baitezakete.

CD-aren amaiera ote da? Denborak bakarrik du erantzuna.

Bitartean, entzun musika.✳





zerbitzua euskaraz  
eman nahi dizugu

lagundu hobetzen



Eskaini 5 minutu galdetegia  
erantzuteari eta parte hartu  
produktu kulturalak erosteko  
50na euroko 3 bonoren zozketan



bete hemen  
galdetegia


eskerrik asko!



Gipuzkoako Foru Aldundia

Gipuzkoa  
BERRIA

# Interneteko mintzakide

Euskaraz ongi moldatzen diren pertsonak eta zailtasunak dituztenek elkarrekin hitz egin dezaten, 'Mintzane' proiektua jarri dute abian. Dagoeneko eman daiteke izena Interneten.  J. Frantzesena

**E**uskara eta Internet. Internet eta euskara. Bi horiek uztartu dituzte 'Mintzane' egitasmoaren sustatzaileek, euskaraz ongi moldatzen diren pertsonak eta zailtasunak dituztenek elkarrekin hitz egin dezaten.

Proiektuaren antolatzaileen arabera, "Jariora lan-zea eta komunikazioa ahalbidetzea" dira ekimenaren helburuak: "Lasai hitz egitea da xedea. Euskaraz hitz egitea. Ez dira eskolak edo ikastorduak, jariora lantzeko lagunarteko elkarrizketak baizik".

Dagoeneko 50 bat lagunek eman dute egitasmo-

an parte hartzeko izena, eta elkarrizketa guztietan irudi bana izango da: bidelaguna, euskaraz ongi moldatzen den herritarra, eta bidelaria, hizkuntzarekin zailtasunak dituena.

Izena eman nahi dutenek [www.mintzane.net](http://www.mintzane.net) helbidera sartu eta norbere datuak eman behar dituzte han. Gero, koordinatzaileak aurkituko du erabiltzaile berriaren beharretara moldatzen den bidelaguna edo bidelaria, eta egutegia egingo du bi pertsona horiek harremanetan jar daitezen. Beraz, inguru edo ezintasun fisikoa ez dira, jada, oztopo.✳



Xabier Euzkitze. (EITB)

## ESANA DAGO

III "Bertsolaria eta bertsozalea naiz, baina gero eta urrunago dakusat plazetara itzultzeko aukera. Ez naiz uzteko erabakia hartzeaz damu"

III "Kontuak atera beharko nituzke, baina... 6.000tik gora pilota partidari jarri diet ahotsa"

XABIER EUZKITZE  
kazetaria

III "Berria'-k tresna bat jartzen du egunero euskaraz bizi gaitezen"

IBAN ARREGI  
Berria taldeko kontseilari ordezkarria

**EREGI**  
EUSKARA ETA KOMUNIKAZIOA

goiko kalea 5, 3A tel.: 943 08 06 88  
azpeitia eregi@eregi.net eregi.net



 domusa

**IRENE ALTUNA**  
LORADENDA

Loiola-Bide, 26 Tel. 943 81 51 87  
www.ialtunadenda.com

# Europa

**B**este bost urterako artzaina aukeratu dugu. Edo artzaina aukeratzen dutenak aukeratu ditugu. Europa, Europa eta Europa. Eta Europak ni aspertu egiten nau, Europak ez nau batere tentatzen.

Gero eta xeblebregoa bai baina tontoa ez, eta badakit, nire egunerokoan, ia inork zer den ez dakien Europa horrek, eragin itzela duela. Ni neu naiz besteen ongizaterako ezer gutxi egiten dutenen zerrendan aurrenetakoa (beste askorekin denbora berean), baina gizatasunik ez duen Europa honek ez nau batere erakartzen.

## IKUSTEKOA!



## txetxu urbieta

Eta irailetik aurrera, hor zehar ditugun kolonietakoren batean oporrak pasatu eta metro-poliko paradisura itzulitakoan, geure artzaina aukeratzea izango dugu zeregin nagusietakoa.

Ea alkate izan nahi dutenek ere ulertzen duten, herri honetako alkate izatea bizitzan izango duten zereginik nagusienetakoa izango dela. Herria alderdien gainetik.

Merkelen morroi izateak ez nau asetzen. Etxeberria, Gorrotxategi edo dena delakoaren herritar izateak, bai. Azpeitiarra, ez *azpeitianoa*.\*

### laster

OG Hospital de la Magdalena  
O1 inaugurazioan  
MAIATZA 2014

OR EGUZKI Gogo-jardunak  
O2 A Gogartetxea  
MAIATZA 11 P. Ángel Ortiz SJ  
MAIATZA 2014

SAT SAT Asteburuetan liburutegia irekita  
O3 31  
MAIATZA MAIATZA  
2014 2014  
Maiatzean eta ekainean asteburuetan Liburutegiaren ikasleentzako irekita egongo da.

### Zer da Loiolako Santutegian?

Askotan galdera hau galdetu eraikin hau ikusteko Urola bailarako erdian. Gune honetako duzu erditu duten lekua ezagutzeko eta hazten lñigo gazte bat gonbidatu nahi zaitugu.

→ The **familiaren etxean**, bere haurtzaroko oroitzapenak

→ Gela horretan bere bihurteta bizi izan zuen lesio larria pairatzeko irufean ondoren, gaur egun bezala ezagutzen **Kapera Conversion**.

→ The **arkitektonikoa** Zure etxean biltzeko, zion janzteko Harmonia barrokoa hori orografia zaila integratuta dauden.

### lotura interesgarriak

- Jesuitak Espainiatik
- Loiolako probintzia
- Ignaziotar espiritualetasunetik
- Otoitz egiten dut
- Jesuita izatea
- Loyola en Facebook
- Loyola en Wikipedia



## ▲ ITXURA ONA BAI, BAINA EUSKARAZKO EDUKIA ZER?

Loiolako Santutegiaren webgunea berri, itxuraldatu eta eduki guztiak bost hizkuntzatan jarri dituzte. Testuak ingelesez, frantsesez, katalanez, gaztelaniaz eta euskaraz irakurri daitezke. Baina euskarazkoak ulertzen, nahikoa lan! Itxura aldatzean jarri duten arreta jarri izan balute euskarazko edukia idazterakoan... **Uztarria**\*

## MAIATZEKO ARGAZKIEN OINAK. HIL HONETAN.....



maite garmendia



### Memoriaren EJE-a

**OROIMEN HISTORIKOA.** Memoria kolektiboak asko du egiteko baina bidea ireki da. Irizpideak, argiak baino argiagoak: Egia-Justizia-Erreparazioan (EJE) oinarritutako urratsak egingo dituzte gertatutakoari argia emateko. Denon eskubidea delako, biktima guztiek hala merezi dutelako, atera ditzagun ezkutuan dauden zantzuak, batzuk nahi ez badute ere, denon laguntzarekin.



### Boladako gaia

**PLAZA.** Plazarena da orain boladan dugun gaia. Hiru aukeretatik zein dugun gustukoago galdetuko digute. Kontserbadoreagoa ala modernoagoa? Kioskoarekin ala gabe? Plazak bilgune eta topaleku beharko luke. Herriaren muina. Jendea kontuan hartuko duena nahi nuke.



### Mendiak arnasa ematen duenean

**'BENAN, MENDIA ARNAS'.** Badirudi, batzuei arnasa kendu egiten digun arren beste batzuei eman egiten diela mendiak, eta eguneroko ogia bezainbeste behar dutela. Mendiari eta mendizaletasunari eman zion bizitza Benantxio Iruretak eta maisu paregabe bezala azaldu

dute *Benan, mendia arnas* dokumentalean harekin ordu asko bizitako hainbat lagunek. Xumar Altzugaraik eta Estitxu Fernandezek maisuki egindako lana ere eskertzekoa da. Soreasu mukuru bete genuenok eskerku genien batari zein besteari egindakoa. Zorionak!\*

## INKESTA

zer iruditzen zaizu herrian zine emanaldirik ez egotea udan?

E. Bereziartua/E. Albizu

LOREA ARENAS

22 urte



"Gaizki iruditzen zait zinerik ez egotea udan, orduan dut-eta denbora libre gehien. Udan ere egiten du eguraldi txarra, eta zinera joateko aukera eduki behar genuke".

J. MARI GURRUTXAGA

73 urte



"Kentzea den guztia iruditzen zait gaizki. Gainera, Azpeitian

afizioa badago zinemarako. Gastua saihestu behar bada, has gaitezen guztia kentzen. Gainera, gastu hori guk ordaintzen dugu".

ALAIN SORAZU

16 urte



"Aukera egon behar luke nahi duenarentzat. Zinema kontua urteetan itzalita egon da Azpeitian, baina azken aldian indarra hartu du".

MARIBI AIERZA

27 urte



"Ni ez naiz joaten, normalean. Ulertzen dut erabakia, eguraldi

onarekin jende gutxiago joaten da-eta zinemara. Normala iruditzen zait udan emanaldirik ez egotea".\*

## Beldurren beldur

**B**eldurraren garaia omen, hala diosku Eduardo Galeanok *Beldur Globala* poesian, langileak lana galtzeko duen beldurra, enplegu gabeek inoiz ez aurkitzekoa. Emakumearen beldurra gizonaren biolentziari, gizonaren beldurra beldurrik gabeko emakumeari. Lapurren beldur, poliziaren beldur, giltzatu ezin daitezkeen ateei beldur, erlojurik gabeko denborari, telebistarik gabeko umeari. Jendeari beldur, bakardadeari beldur. Hiltzeari beldur, bizitzeari beldur.

Sistemaren tresna paregabea da beldurra, kontrola bermatzen baitu, sumisioa. Boteredunek boterea mantentzea eta zapalduok zapalduak izaten jarraitzea, sistema birproduzitzea.

Terrorearen saturazioa ematen da hedabideetan, siniestrotasuna eta paniko leherketa eguneroko ogi bihurtzen dute filmek. Guztiz normalizatuta saltzen digute bortizkeria; erotismoa helduen ordutegira mugatzen dute, baina biolentzia esplizitua uneoro



amaia agirretxe

ageri da. Giza-emozioekin jokutzen da, jendarteari kaosaren ideiarene bidez beldurra barneratzeko.

Beldur naiz beldur hau urrutiegi joango ez ote den, zinez izutzen bainau beldurra sentitzeak. Baina beldurrak ez gaitu zuzenean pasibo bilakatzen, beldurrak arriskuaren kontzientzia hartzea ekar baitezake, galdu dezakegunaren eta irabaz dezakegunaren balantzaren aurrean kokatzea. Eta irabazteko hautua egitean, subjektu bilaka gaitzke, ausardiaz jantzi. Arriskuaren kontzientziarik ez duena ez baita ausarta, paradoxikoki ez baitago beldurrik gabeko ausardiarik.

Beldurrez eta bortizkeriaz zapalduak ausardia lortzean, beldurra bandoz aldatuko da, boteredunen boterea kolokan jarritz. Galtzeko baino, irabazteko gehiago dugunaren kontzientzia falta zaigu, beti behan mantentzen gaituen sistemaren oreka desorekatu hau irauli dezakegula sinestea.

... eta bihar beldurrik gabe esnatuko bagina?\*

galdetzen hasita, Realeko bazkideak ugari dira herrian, baina Eibarko bazkiderik ba al da Azpeitian? Uztarria

## Peseta, caballo, manzana

**B**izitza den bide liluragarri honetan hainbat jendekin, libururekin eta paisaia zoragarriekin topo egiten dugu. Bizitzan zehar ikasten dugu jaten, korrika egiten, jolasten, irakurtzen, pairatzen, maitatzen, bizikletaz ibiltzen, hitz egiten, isiltzen, eta abar, eta abar... Bizitza ikastea delako.

Baina egun batean gehien maite ditugunetako batek esaten digu ez duela gauza berririk ezagutzeko beharrik. Eta bere jakinmin ezak mintzen gaitu, igartzen baitugu lehen seinale dela, gugandik urrundu doala eta bizialdiaren azken epean dagoela.

Horrela, beste egun batean gure izenaz ez da oroitzen. Edota guraso zirenak bizirik daudela uste du.

Orduan, geldiezina dena gelditu nahian, medikuarenera daramagu. Eta duela hiru aste buruargia zenak ezin du *peseta-caballo-manzana* errepikatu, edo *caballo perro*-rekin nahasten du. Eta jabetzen gara: bizitza ahanztearen bada.



miren alcedo

Poliki-poliki abildade guztiak galtzen goaz: gidatzea, sukaldatzea, telebista jartzea edo taka-taka erabiltzea. Burua oso beteta edukiko bagenu bezala, naturak astintzen eta husten gaitu, izen propioa ezezaguna egin arte. Nola burutu ez jakin arren, komuneraino iristeko pasillo madarikatu hori zeharkatu behar dugula gogoratzen dugu bakarrik.

Bizitzan zerbait iraunkorra egin nahi dugu, baina azken uneetan galtzen dugu pertsona egiten gaituena ere: zeintzuk ziren gaztetako ilusioak, zergatik borrokatzen garen, zein izan den gure atsekabe handiena, zein lorpen goxoena, zerekin eta zeinekin gozatzen garen edo Mexikoko egonaldi hura.

Memoria hori galtzeak gure gizatasuna desagertzea suposatzen baitu.

Horrexegatik, gure txanda ailegatzen denean, eduki genituen ametsak zeintzuk ziren gogorarazteko norbait aldamenen izatea da bizitzari eska diezaiokgun gauza bakarra.\*

NIK ETZAKIAT NOAAAÑO JUNDAN  
BAÑO PLAZIK HAUNDIYO EMATEIK!



# Beti

**B**eti. Eta hitz hori deklinatuz sortzen diren konbinazio guztiak. Horiek dira alde hitz egiten dutenek erabiltzen dituzten argudioetan gehien agertzen diren hitzak: *beti hor egon da, betitik dago hor, beti horrela ezagutu dugu, betikoa da*.

Ematen du, Jainkoak mundua sei egunetan egin ondorengo zazpigarren egun hartan, hor bertan hartu zuela atsedean. Edo oraindik areago: ematen du, Bibliaren Itun Zaharraren Hasiera honela hasten dela: *"Hasieran Jainkoak Azpeitiko kioskoa egin zuen"*. Gero etorri ziren zeru-lurrak, argia eta osterantzekoak.

Dena den, hori ez zen horrela izan. Izan ziren azpeitiar gizaldi batzuk, gehienak, plaza kioskorik gabe ezagutu zutenak, eta haiek esaten zuten "betitik plaza hutsa ezagutu dugu".

Izango ziren baten batzuk bere garaian erabaki zutenak –alkatearen eta udalbatza- ren inposizioz, erreferendumez, edo garizuma bera baino luzeagoko asanblada-prozesu baten bidez– plazan kioskoa jarri behar zela, konparazio batera, herriko musika bandak han jo zezan igandeetan; eta bide batez, zergatik ez, azkoitiarrek inbidia apur bat senti ze-



## ñaut frantzesena

zaten munduaren zentrora etortzen zirene- tan.

Eta orain ere, erabaki egin behar omen dugu nolakoa nahi dugun herriko plaza. Eta dakitenek esaten badute artistikoki, kultural- ki, ondareari dagokionez, ez duela balorerik, ba zer nahi duzue nik esatea.

Niri kioskoak errezildarrak gogorarazten dizkit. Zehazki, Errezilgo mutil azkar hark irakasleari erantzun ziona. Irakasleak galdetu zion ea etxean zer egiten zuen, eta umeak erantzun zion: "Nik? Enbarazu".

Gure kioskoak bezalaxe.\*

# 'Lugares poco recomendables'

**L**iburu arraro batekin nator oraingo honetan. Titulua irakurri- takoa galdera ere zuzena da: "Zertaz ote doa?".

Liburua baino gehiago, kazeta- ritza lana da. Bidaiariei eginiko omenaldi bat bezala. Orain dela hamabost urte argitaratutakoa da, eta egunkari ezagun batean igandero ateratzen dituzten txosten berezietan argitaratutako hamabi artikuluk osatzen dute lana. Munduan zehar dauden eta hain ezagunak ez diren zenbait lekuri buruz idatzi zituen egileak artikulua horiek.

Askotan pentsatzen dugu ko- munikabideen bitartez ikusi, ent- zun edo irakurritakoari esker, mundua gure esku daukagula eta jada ez dagoela ezer deskubritze- ko. Liburu honetan ikusten da oraindik badaudela –edo bazeu-

**KRITIKA**  
'Lugares poco recomendables' liburua



**Egilea.** J. Perez de Albeniz.  
**Argitaletxea.** Ed. Desnivel.  
**Argitalpen urtea.** 1999.  
**Orrialdeak.** 168.  
**Salneurria.** 9,80 euro.

dela– zenbait leku, oso gutxi edo batere ezagutzen ez ditugunak. Esan bezala, liburuak hamabost urte dauzka; zer aldatu ote da leku horietan denbora honetan? Hobera edo txarrera egin ote dute?

Liburua Amazonian hasten da; gero datoz Dolpo, Antartika, Hornos, Kolonbia, Transmongoliarra, Zaire, Marquesas Uharteak, Orinoko, Zanzibar eta Everest, eta Chiapasen bukatzen da. Leku ba- koitzeko xehetasun interesgarriak ematen ditu. Artikulu gehie- netan natura ikusgarria eta toki- koen bizimodua da deskribatzen direnak. Batzuetan turismoak edo bisitariak eragindako aldake- tak azpimarratzen ditu; bestee- tan, gerrak edota pertsonen es- plotazioak sortutakoak ere aipa- zen dira.

## luix juaristi

Liburuak konklusio askotara eramaten zaitu. Horien artean garbienetakoa izan daiteke, denok mundu berean bizita, ze ezberdintasun dauden, non jaiok- ak garenaren arabera. Zer nolako gogorak eta zailak diren leku ba- tzuk gogorak eta zailak diren leku ba- tzuk bizitzeko, gu ohituta gauden lekuekin konparatuz; Himalaiari eskainitako artikuluan garbi ikus- ten da hori, adibidez.

Oso erraz irakurtzen den libu- rua da Javier Perez de Albenizen *Lugares poco recomendables*; pare bat egun nahikoak dira, bai sortzen duen interesagatik, bai orrialde kopuruagatik. Ez dago li- buruan ez pertsonaiarik, ez elka- rrizketarik, deskribapenak soilik.

Ea norbait animatzen den libu- ruko tokiak bisitatu eta deskriba- tzera eta kontatzera, 1999tik hona zer aldatu den.\*




**La Primavera**  
pizzeria  
943 083 460  
www.laprimaverapizzeria.com

**AZKOITIA**  
ERLOJU  
KONPONKETAK  
Arana, 5  
AZPEITIA Tel: 943 81 47 12

**AIZPURU AUTOAK**  
Landeta auzoa - Telf: 943 81 23 59  
Faxa: 943 81 22 81 20730 Azpeitia  
aizpuru@aizpuru.net

## DISEINUA AURRENA.

Pitxiak egiten hasi aurretik diseinatu egin behar. Eta, diotenez diseinu-lanetan pasatzen dute denbora gehien pitxigile hauek, bi pitxi berdin sekula ez dituzte-eta egiten. Ordenagailuz diseinatu eta paperean ere jasotzen dituzte diseinuaren nondik norakoak. Eratzunen kasuan, gainera, neurri batzuk kalkulatu behar izaten dituzte.



# Eskuz, eskura

Zilargi proiektuarekin dabilta Naiara Izagirre eta Maddi Zabala. Zilarrezko pitxiak egiten dituzte, Donostian duten lokalean. Eratzun baten prozesua argazkitan jaso du Uztarriak. 📌📷 Julene Frantzesena (Donostia)





## ZILARRA URTU.

Ezertan hasi aurretik, zilarra urtu eta aleatu egiten dute, 'plata de ley' moduan ezagutzen dena lortzeko. Ondoren, lingotea txapa edo hari bihurtu eta nahi duten lodiera ematen diote, eskuz.



## ▼► MARKATU, MOZTU ETA LIXATU.

Pieza markatu, ehuna eman eta marketeria-zerrarekin mozten dute, aurrez egindako diseinuaren arabera. Behin moztutakoan, piezaren alde guztiak limatzen dituzte antenaiarekin. Pieza desberdinak egin ostean, antenaia behatzekin heldu ezin dituzten piezei eusteko erabiltzen dute.





### ▼ IJEZTEKO MAKINAN.

Pieza goritu eta biguntzeko ur hotzetan sartu ostean, ijezteko makinatik pasatzen dute. Estanpazioa bertan egiten da.



### ▼ ZURITU.

Eraztunaren bi piezak elkartu aurretik piezak borax likidotan busti behar izaten dira, metalaren goritze puntua jaisteko eta errazago soldatzeko. Gero, borax hori kentzeko eta oxidoa garbitzeko beheko potoko azidotan sartzen dute pieza.



### ▼ PIEZA GOGORTU.

Plastikozko mailuarekin kolpeak eman behar zaizkio piezari, gogortzeko eta forma emateko.

### ▼ BIPIEZAK BATU.

Eraztunaren bi zatia elkartzeko, aleazio desberdineko materiala behar da. Bi zatien artean jarri eta sopletearekin itsasten dituzte.



### ▲▼ KOLOREA.

Ijezteko makinan egindako irudiari kolorea emateko patina oxidatzailea erabiltzen dute. Behin koloreztatuta, 24 orduz uzten dute pieza lehortzen.

### ▼ LEUNDU.

Eraztunari disdira ateratzeko, leundu egin behar da. Makina elektriko bakarria horretarako erabiltzen dute, eta pitxiaren prozesuko pausorik luzeena da.



### ▼ ARTISAU AZOKAK.

Zilargi markaren jabeak artisau azoketan postuak jartzen hasi dira. Argazkian, Naiara Izagirre eta Maddi Zabala Orioko azokan. Zilargi pitxien orria ere badute: [www.facebook/zilargi.bitxiak.com](http://www.facebook/zilargi.bitxiak.com).




# ‘Nolakoa’ da galdera

Herriko plaza eraberritzea erabaki du Udalak eta herri galdeketa deitu du, zenbait erabaki zehazteko. Tartean, oinezkotzearen aukera. 📎📷 J. Frantzesena / M. Oiarzabal

**H**erriak bezala, historia luzea du Azpeitiko plazak ere. Itxuraldaketak, erabilerak eta izen aldaketak bat baino gehiago ezagutu ditu aspalditxoko urteetan Enparantza Nagusia bezala bataiatuta ezagutzen dugun guneak. Izarraitz aldera udaletxea eta Urola ibai aldera azoka plaza muga dituela, lau aldeetatik ia osorik arkupeaz inguratuta eta erdi-erdian kioskoa duela ezagutu dute gaur egungo belaunaldi ezberdinetako azpeitiarrak guztiek. Baina herriko plazaren itxura aldatze-  
ra doa eta, gainera, itxura berriaren nondik norakoak zehazteko moduan izango dira azpeitiarrak.

2011ko udal hauteskundearen ondoren Udalean ordezkariak lortu zuten hiru alderdiek –Bildu, EAJ eta Hamaikabat– beren hautes-programan jasoa zuten plaza eraberritzeko asmoa. 2014ko aurrekontuetan asmo hori gauzatzeko diru-poltsa onartu zuen Udalak eta, joan den maiatzeko ohiko udalbatzarrean, aho batez onartu zuten udal hautetsiek plazaren eraberritzea irakitzeko. Ez zen, ordea, ohiko erabakia izan, plaza nola eraberritu erabakitzeko herri galdeketa





||| “Seguru nago galdeketan oinezkotzea aterako dela, gehiengoa ez delako jartzen gure egoeran”

**LUIS ALBERDI**

**dendaria**

egitea onartu baitzuen Udalak. Horrela, ekainaren 13an, 14an eta 15ean, 16 urtetik gorako azpeitiarrek Udalak aukeran jarri dituen hiru proiektuen artean gustukoena zein duten bozkatu ahal izango dute, kioskoa mantentzea edo kentzea nahi duten, eta plaza oinezkotzea nahi al duten ala ez.

Azken galdera horren bueltan, plaza oinezkotzearen gainean, sortu da bereziki eztabaida. Alde Zaharreko merkatari ia guztiek bat egin dute plazaren balizko oinezkotzearen kontra, eta iritzi kontrajarriak plazaratu dira han eta hemen. Uztarriak merkatari, tabernari eta bizilagun banaren iritziak jaso ditu. Guztiak datoz bat plazaren eraberritzea gauza ona izango dela esaterakoan. Eraberritzeak nolakoa izan behar duen, hor dago kokka.

**LUIS ALBERDI**

**dendaria**

“kaleak ixteko, Lehendabizi jendea erakarri behar duzu”

“Galdeketa orokorra egitea, pertsonalki, ez zait ondo iruditzen. Sanjuandegin, Landetan edo Loiolan bizi direnak ados egongo dira, nik uste, hau ixtearekin. Baina haiek ez dute hemengo egoera ikusten. Uztarrarian irakurri dut jendeak esaten duela astebukaeretan jendea ibiltzen dela. Baina, astelehenetik ostiralera, zergatik ez dira etortzen eta ikusi, ea zein ibiltzen den hemen? Ordubatean ixten dituzte kaleak eta goizeko zortziak arte ez dituzte irekitzen. Eta inor ez da ibiltzen.

Seguru nago galdeketan plaza oinezkotzea aterako dela, gehiengoa ez delako jartzen gure egoeran. Galdeketan oinezkotzearen alde egingo duten guztiei beste galdera bat egingo nieke: zergatik ez oinezkotu anbulatorio paretik hasita, edo Sanjuandegitik hasita? Egin dezagun galdeketa, herri mailan. Sei hilabetez dena oinezkotuko dugu eta nahikoa toki izango dugu. Ea jendeak zer erantzuten duen.

Soreasu alferrik galduta dago eta bizitza eman behar zaio. Zerbitzu gehiago behar ditugu. Musika eskola ekarri daiteke, adibidez, zergatik ez? Hemendik dena kentzen baduzu, ezer ez dago. Neuri ez litzaidake gaizki irudituko kaleak ixtea, baina jendea ibiliko balitz. Lehendabizi jendea erakarri behar duzu, eta gero itxi, nahi baduzu. Lur-azpiko aparkalekua aipatzen dute, baina non daude parkingaren berri ematen duten seinaleak? Zestoa aldeko sarreran bakarrik dago seinaleztatuta. Gu aspalditik ari gara eskatzen herrian zehar seinale gehiago jartzeko. Hiru urte daramatzat dendan, eta tarte horretan ez dut seinale bat gehiago ikusi”.

**IÑAKI ZUBIZARRETA**

**tabernaria**

“jendea lasai ibiltzen da auto gabeko Lekuetan”

“Galdeketa oso ondo iruditzen zait. Uste dut udal guztiek horrelako gehiago egin beharko



||| “Azpeitian denok saltzen dugu gutxiago, baina ez oinezkotu ala ez oinezkotzeagatik”

**IÑAKI ZUBIZARRETA**

**tabernaria**



||| “Garbi ikusten dut plaza irekia izan behar dela, kiosko gabea, dinamikoa eta oinezkotua”

**RAMON LAMARIANO**

**plazako bizilaguna**

lituzketela; zaborrenak eta, horiek ere galdetu egin beharko lirateke.

Gauza asko egin dira Alde Zaharrean, baina plazari tokatu egiten zitzaion ja. Utzita zegoen, bai plaza eta bai azoka plaza. Ez negozioa dudalako soilik, azpeitiar bezala, plazak beharra du. Beste herrietan kristoren plazak ikusten dira, eta hemengoa aparkalekua da.

Niri oinezkotzea ondo iruditzen zait, Alde Zaharreko bizilagun bezala eta ostalari bezala. Uste dut merkatarietara eta ostalarietara izugarriko mesedea egingo digula. Obrekin sufritu egin beharko dugu, baina bukatutakoan buelta etorriko da, eta onera egingo du egoerak. Jendea lasai ibiltzen da auto gabeko tokietan; bai erosketak egiten, bai tragoa hartzen eta bai umeekin. Horrek asko balio du. Gainera, hemendik kanpo, ondoen funtzionatzen duten dendak eta dira oinezkotutako tokietakoak. Ulertzen ditut dendarien beldurrak. Azpeitian denok saltzen dugu gutxiago, baina ez oinezkotu edo ez oinezkotzeagatik, dagoen egoeragatik baizik. Duela bospasei urte berdin izango zen zer egiten zen, baina orain dagoen egoerarekin jendea beldurrez dago. Normala da, hortik bizi gara eta, baina ni baikorra naiz eta uste dut hobe izango dela denontzat. Gauza berriak asmatu behar ditugu eta jendea erakarri. Ez dendan edo tabernan egon eta ‘etorriko dituk’ pentsatu. Gauzak jarri, ekimen berriak... egin beharko ditugu. Donostian ere horrela ibili omen ziren, dendariekin eta ostalarietara, eta bi urterako aitortu zuten jende gehiago ibiltzen zela. Jen-▶

►dea horrelako tokietan ibiltzen da. Nik horrela ikusten dut”.

## RAMON LAMARIANO

plazako bizilaguna

“Badakit oso zaila dela denen nahia egitea”

“Plaza eraberritzea beharrezkoa zela uste dut, eta oinezkotzea ere ezinbestekoa iruditzen zait. Plaza batek bizitza eduki behar duela iritzi diot, eta bizitza hori ez dela lortzen 60 kotxe aparkatuta edukita. Plaza batek bizitza izatea lortzen da terrazak edukita, umeek bertan jolas egiteko aukera edukita...”

Plaza eraberritzeak eta oinezkotzeak, era berean, aparkalekuen arazoari irtenbidea ematea eskatzen du; suposatzen dut horri buru buelta batzuk ematen ariko direla. Zentzurik edukiko ez lukeena da plaza oinezkotzea eta, gero, bertako jendeak asteko erosketarekin edota ume txikiekin tren geltokitik haraino joan behar izatea. Bizilagunok orain ere ez daukagu inongo erraztasunik plazan aparkatzeko. TAO jarri zutenetik esan eta esan aritu gara, urtekoa ordainduko dugula eta bizilagunen txartela eskuratzea aukeran jartzeko. Suposatzen dut, horrelako obra bati ekinda, urteetako arazo horri ere irtenbideren bat emango diotela.

Eredu zehatz baten gaineko ideia garbirik ez daukat. Garbi ikusten dudana da plaza irekia izan behar dela, kiosko gabea, dinamikoa, eta oinezkotua. Badakit oso zaila dela denen nahia egitea. Plaza denen zerbitzura dagoela oso ondo ulertzen dut, baina horrek ez du esan nahi bertako jendeak izorratuta egon behar duenik”.

## Hiru galdera, hiru proiektu



**E**rantzun beharrek galderak hiru izango dira: plaza oinezkotu bai ala ez; kioskoa mantendu, bai ala ez; eta, aukeran dauden hiru proiektuetatik zein duten gustuko.

Lehenengo galderan plaza oinezkotzea erabakiko balitz, enparantza itxi egingo luke autoentzat. Udal ordezkariak azaldu dutenez, plazan egun dauden 75 aparkamentuak kendu eta plazako baldintza berdinetan (20:00etatik 09:00etara doan, eta bestela orduko 0,50 euro) 150 aparkaleku izango dira Soreasuko lur-azpiko parkingean.

Plaza oinezkotzeak trafikoa ere eragingo du, baina orain arteko moduan, goizetan, autoz ibili ahal izango da Alde Zaharrean. Al-datuko dena da, plazara ezingo dutela sartu kotxeek. Dena den, eragileekin bilerak egingo dituztela aurreratu dute udal ordezkariak, eta han erabakiko dutela trafikoa erantzat itxita dagoenean zer sistema jarriko duten Alde Zaharreko bizilagunentzat eta.

Bigarren galdera kioskoaren ingurukoa izango da. Kioskoa mantentzearen aldeko bozka kentzearen aldekoak baino gehiago badira, kioskoa eraberritu egingo dute, dagoen moduan ezin delako mantendu.

Hirugarren eta azken galdera plaza nola eraberritu zehaztuko duena izango da. Herri-tarrek hiru arkitektura estudiok egindako proiektuen artean hautatu beharko dute.

Bozka gehien jasotzen duen proiektua hartu eta moldatu egingo dute, aurreko bi galderetan atera den emaitzaren arabera eta, udal ordezkariak esan dutenez, jarraipen batzorde bat osatuko da galdeketa ostean.

Plaza eraberritzeko lanak abutzuan edo uda ostean hastea aurreikusten du Udalak.



*“Il Partigiano” azpeitiko lehen pizza artisan egilea da. Gure italiar pizza tradizionalak produktu fresko eta naturalekin eginak daude. Egunean etxean egindako masarekin, momentuan eskuz zabaldua.*


**ETXERA ERAMANGO DIZUGU**

**Telefonoa**  
**943 08 09 13**

ildefonso gurrutxaga, 12 behea

**IL PARTIGIANO**  
Steeko Pizak

# Aldaketaren ariketa

Aurrenekoz egingo da herri galdeketa Azpeitian. Eneko Etxeberria alkatearen esanetan, “lehenengo pausoa” izango da hau, eta “ikasteko balioko” duela uste du.  Julene Frantzesena

**H**erriarren parte hartzerako araudia onartu zela urtebete pasatxo denean –joan den urteko ekaineko udalbatzarrean onartu zen Bilduren aldeko bozkekin; EAJ eta Hamaika bat abstenitu egin ziren– egingo da historiako lehen herri galdeketa Azpeitian.

Aurretik sekula ez da gisa horretako galdeketa egin herrian. Eneko Etxeberria alkateak azaldu duenez, lehenago ez dute egin galdeketen kulturak “egitura, metodoa eta denbora” behar dituelako, eta ezin delako “libreki galdetu”. Dena den, aurretik “iritzi oso kontrajarriak dituen elementurik” ez dutela ikusi ere aitortu du: “Plaza berritu beharra zegoen. Ikusten genuen ez ginela gai eragile desberdinak ados jartzeko, gatazka zegoela eta ez ginela elkar konbentzitzen. Horregatik egingo da galdeketa”. Udaleko hiru alderdiek erabaki zuten galdeketa egitea.

## Bi arrazoi

Plaza eraberritzearen inguruko galdeketa egiteko bi arrazoi nagusi daudela dio Etxeberriak: “Arrazoi bat oso konkretua da. Interes desberdinak tarteko, talka zegoen eragileen artean. Horren aurrean ez da erraza erabaki bat hartzea, eta erabakitzeke moduari dagokionez hiru aukera genituen; udal gobernuak erabakitzea, udaleko alderdiekin adostasuna lortzea edo galdetzea. Bestalde, bazen egiturari lotutako arrazoi bat ere. Kultura politikoan aldaketa ematea beharrezkoa dela uste dugu, eta herria ondo kudeatzeaz eta ahal den erabaki onenak hartzeaz gain, or-

dezkaritza sistemak eta demokrazia sistemak hobetzeko erantzukizuna daukagu”.

Etxeberriaren aburuz, “kultura politikoan aldaketa” ekarriko dute galdekete: “Demokrazia zuzenaren, parte-hartzekearen, aldeko apustu erreala da. Lehenengo esperientzia da hau, lehenengo pausoa, eta ikasteko balioko du, gehiago etorriko direlako. Denok ikasten dugunean, edozer galdetzeko aukera izango da, eta Azpeitian beste modu bateko politika egingo da”.

## Loteslea

Ordenantza onartu zutenean Azpeitiko alkateak esan zuen, kontsulta eta galdekete emaitzak “legez ez direla lotesleak”, baina “konpromiso politikoz, betebeharrerekin” joko zituztela. Orduan esandakoari jarraituz, “emaitzaren bat” egingo dutela azaldu du: “Esanda gaude lotesle egingo dugula galdeketa, eta emaitzak geure egingo ditugula”.

“Gure papera da prozesuari bermea ematea. Herritarrek erabakiko dute, eta onartu egingo dugu ateratzen dena ateratzen dela”, esan du.

## Galdeketa gehiago

Herri kontsulta gehiago egingo diren ala ez zehaztu gabe dutela adierazi du Etxeberriak, baina “ez gaude itxita”, dio: “Ekainaren 13koa, 14koa eta 15ekoa aurreneko esperientzia izango da. Hau egingo da, eta ikusteko dago gehiago etorriko diren. Esperientzia hau ikusi beharko da aurrera”.

Etxeberriak dioenez, “gauzak

galdetzea” ez dago udal gobernuaren esku soilik. “Herritarrak etor daitezke esanaz ez dakit zer galdetu behar litzatekeela, edo bil dezakete galdeketa egiteko eskatzeko sinadura kopuru bat. Hala ere, zenbait alorretan ez du eskumenik Udalak. Besteak beste, gizarte zerbitzuetan, errepideetan, ingurumenean, Lanbiden... Eta gauza horien gainean ezingo genuke egin galdeketa-rik”.✳

## ||| GALDEKETA ZENBAKITAN |||||

**12.071** herritarrek eman ahal izango dute bozka herri galdekete.

**16** urtetik gorako azpeitiarrek bozkatu ahal dute.

**3** eguneko galdeketa izango da (ekainak 13, 14 eta 15).

**3** galdera erantzun beharko dituzte parte hartzen dutenek.✳



Eneko Etxeberria. ||| Azpeitiko Udala

||| “Herri galdeketa loteslea da, eta ateratzen diren emaitzak geure egingo ditugu”

**ENEKO ETXEBERRIA**  
alkatea



# Erabakien prezioa

**Txirotasunarekin lotuta dago energia pobrezia. Herritarren premietako bat da etxea bero mantentzea. Ez da hautua, ezta luxua ere.** 📌📍 Eneritz Albizu Lizaso

**J**an, etxea berotu edo arropak erosi. Herritarrek erabaki egin behar dute zer kendu". Horrela azaldu du Orkatz Goenaga Iraurgi Berritzen garapen agentziako teknikariak pobrezia energetikoaren ondorioa. Haren arabera, bi erataria defini daiteke txirotasun mota hori: batetik daude errentaren %10 baino gehiago argindarrean eta gasean gastatzen duten familiak; eta, bestetik, hotza egiten duenean, etxea hamazortzi gradutan mantendu ezin dutenak.

Goenagak argi azaldu du etxea bero mantentzea ez dagoela lotuta erosotasunarekin. Izan ere, osasun arazo larriak izan ditzakete etxea hamazortzi gradutik behera dutenek: "Gripea, katarroa, artikulazioetako mina edota estresa dira etxea behar bezala ez berotzearen eraginetako batzuk". Etxebizitza, gutxienez, hamazortzi gradutan izatea komeni da, baina hemeretzi eta hogeit hamar bitartean da tenperatura egokia.

Ingurugiro Etxea Fundazioak pobrezia energetikoari buruzko azterketa egin zuen Urola Erdian, hots, Azpeitia, Azkoitia eta Zestoan, duela bi urte. Ikerketa horretan parte hartu zuen Goenagak, eta hiru udalerrietako 212 familiarekin bildu ziren. Goenagaren hitzetan, Urola Erdian, biztanleen %4k baino gehiagok pairatzen du energia pobrezia. "Familia batzuek ez zekiten arazo hori zutenik, ikusten zuten nekez ordaintzen zutela argindarraren faktura, baina nola edo hala molda-



Temperatura egokitze gailua.



tzen ziren”, esan du Iraurgi Berritzeneko teknikariak.

Hari mehe horren beste aldean daude energia “arrazionalki” kontsumitzen ez duten herritarrak, soka lodiarri etsuta. Izan ere, ikerketarekin ikusi zuten herritarren %35ek ez duela behar bezala kudeatzen energiaren kontsumoa. “Energiaren erabilera lotuta dago familien errentarekin, eta ez luke horrela izan behar”, adierazi du Goenagak.

Bi aldagai bereizten ditu teknikariak arazoa azaltzerakoan. Soldata altua duten pertsonak argindar gehiago gastatzen dute, “luxua” aukeratzen dutelako: “Zenbat eta errenta altuagoa izan, orduan eta etxe-tresna gehiago erabiltzen dira. Familiak, askotan, alferrik gastatzen dute dirua, tresna horiek piztuta izaten dituztelako”. Hala ere, gasaren kasuan, familia xumeek diru gehiago gastatu behar izaten dute, oro har, beraien etxebizitzak ez daudelako prestatuta hotzari aurre egiteko: “Hotza sartzen den zirrikituak dituzte, leihoak beira batekoak dira edo etxeak ez daude ondo egituratuta; horrela, oso zaila da etxea bero mantentzea”.

Soka lodiarri heltzen dioten herritarrek ez dute zintzilik gelditzeko beldurrik, eta hori azal daiteke zifra bidez ere. Iraugi Berritzeneko teknikariaren hitzetan, energian “xahututako” dirua bi milioi eurokoa izan zen Urola Erdian, 2012an. Azpeitiari soilik begiratzen badiogu, herritar kopuruari erreparatuta, batez beste 980.000 euro gastatu ziren, alferrik, udalerrian. Horri beste datu bat gehitu dio Goenagak: “Ikerketa 2012an egin zen; ordudunak, energiaren prezioak izugarri egin du gora”.

Arazoari aurre egiteko modua izan daiteke etxe-tresna eraginkorrak erostea. Izan ere, erosketa egiterakoan “zertxobait garestiagoak” diren arren, “epe laburrean” aurrezten da dirua haiek kontsumitzen duten energia urriarekin, Goenagaren hitzetan. 2012an, Urola Erdiko familien %50 zegoen prest horrelako inbertsio txikiak egiteko, eta apurka-apurka aurrezten hasteko.

||| “Energiaren erabilera lotuta dago familiaren errentarekin, eta ez luke horrela izan behar”

ORKATZ GOENAGA

Iraurgi Berritzen



Orkatx Goenaga.

## ||| AHOLKUAK |||||

**Berogailu sistema** bi urtean behin berrikusi.

**Etxean jendea dagoenean soilik** piztu berogailua.

**Berorik behar ez duten geletan** balbulak blokeatu eta atea itxi.

**Ez aireztatu etxea** behar baino gehiago.

**Arropak lehortzeko** ez erabili berogailua.

**Argiak piztuta** ditugun begiratzeko joera dugu, baina argiak dira, hain zuzen ere, energia gutxien gastatzen duten ballabideak.

**Tresna berriak erosterakoan**, hautatu eraginkorrenak, A+++ eta gisa horretakoak. Garestiagoak diren arren, hilero aurrezten da kontsumoarekin.

**Gutziz kargatuta erabili** garbigailuak eta halakoak.\*

Bestalde, ikertaldeak galdetu zien herritarrei ea onartuko luketen inbertsio handiak egitea, “epe luzera” uzta emango zutenak. Kasu horretan, %25ek esan zuen baietz.

### Aldaketak prezioan eta fakturan

Prezioa ez ezik, faktura eredu ere aldatu da azken urteetan. Hain zuzen, 2014ko apirilaren 4an jarri zen martxan argindarra ordain-

tzeko bide berria. Mila Urzelai KIUB Azpetiko Kontsumitzaileen Arreta Bulegoko teknikaria da, eta hark nabarmendu du aldaketak ez duela “berebiziko” alderik eragingo ordaintzerakoan. “Beldurra genuen eredu aldatu behar zelako, baina lasai egon gaitzke, ez baita asko antzemango”, adierazi du Urzelaiak.

Gaur egun, hiru eredu daude faktura ordaintzeko. Horietako bat zuzenean alboratu daiteke, KIUBeko teknikariaren arabera. “Aukeretako batean, prezio finkoa ordaintzea eskaintzen dute, baina hori beste ereduak baino garestiagoa da, oro har”. Beste bi ereduak, berriz, kontagailuaren arabera dira: analogikoa edo digitala. “Azpeitiko etxepa guztietan kontagailu analogikoak daude, eta horiek aldatu bitartean, eguneko batez besteko prezioa aplikatuko zaie kontsumitzaileei. 2018rako nahi dituzte jarri kontagailu digitalak etxebizitzan guztietan, eta horiek jartzen dituztenean orduko batez bestekoa izango da aterako dutena”, esan du.

Urzelairen aburuz, kontagailu digitalaren ereduaz izan daiteke merkeena: “Badakigu gaez argindarra merkeagoa izan ohi dela, beraz, kontadore digitalak ahalbidetuko du garbigailua gaez jarriz gero, eta harrikoa ere iluntzean eginez gero, apur bat gutxiago ordaintzea”. Urzelaiak, ordea, uste du alde ez dela nabarmena izango: “Kontuan izan argindarraren %60 BEZa dela, eta faktura eredu horrek gainontzeko %40ari eragingo diola”.

### Laguntza behar dutenentzat

Energia pobreziaren inguruko txostena argitaratu zenean erabaki zuen Azpeitiko Udalak Energia Bulegoa irekitzea, herritarrek zalan-tzak galde zitzaten eta laguntza eska zezaten. Zortzi hilabetez egon zen irekita bulegoa, eta zazpi bisita soilik izan zituen. Horregatik, gaur egun, herrian ezin da halako zerbitzua mantendu. Arazoak dituzten herritarrek galde dezakete bono sozialari buruz, hori eskuratuta, argindarra erdi prezioan izango baitute. Bestela, Euskal Energiaren Erakundea da, gaur egun, gai horiek lantzen dituena.\*

||| “Argindarraren %60 BEZa da, eta faktura eredu berriak gainontzeko %40ari eragingo dio”

MILA URZELAI

KIUB

# Jeloskortasuna bikotean

**B**ikote harreman batean, bestea galtzeko beldurra sor daiteke hirugarren baten etorrerarekin. Hirugarren hori bikote ohia, lankide berri bat, ezaguna edo ezegun izan daiteke, eta ziurtasun-gabezia sakona sor dezake. Batzuetan mehatxuak badu bere funtsa, eta beste batzuetan ez gehiegi. Batzuetan ere gerta daiteke funtsik gabeko segurtasunik ezak, azkenean, benetan bikotea uxatu eta nazkatzen bukatzea.

Bikotekideak sufritu ez dezan, batzuetan informazio sentsiblea gordetzea erabaki dezakegu, hala nola, zein polita iruditzen zaigun norbait, bikote ohiarekin kalean topo egin izana, eta abar. Jeloskortasunari aurre egiteko metodo horrek, batzuetan, huts egiten du; izan ere, hain juxtu, informazio hori eman ez izanak zerbait ezkutatu beharraren susmoa sustatu dezake.

Bestetik, jeloskorra denak hainbat ekimen jartzen ditu martxan bere susmo txarrak konfirmatzeko, hala nola, bikotearen telefono mugikorrean kuxkuxeatzea, galdeketa 'poliziakoak' egitea, leku guztietara laguntzea... Horrek ere ondorio negatibo ugari ekarri ohi ditu: bikotekideak izkin egitea, telefonoa inoiz baino gehiago zaintzea, eta abar. Katuaren eta saguaren arteko jokoa hasten da horrela, eta ondorioak nahiko larriak izan ohi dira.

Ikusi dugun bezala, sorgin gurpil batean sartzea oso erraza da, baina ez hainbeste ateratzea.

## Aurre egiteko pauso batzuk

Lehenik eta behin, 'jeloskortasunaren jokoa' ren goiko bi ekimen kaltegarriak ezagutu eta identifikatzea ezinbestekoa da, bakoitza zertan ari den ulertu ahal izateko. Formula magikorik ez egon arren, irizpide batzuk izatea onurgarria da. Bikotekideek euren harremana bitxia dela sentitzea ezinbestekoa da. Elkarrekikoa izatea, garrantzitsua izaten da oso. Eta, azkenik, indartsua. Hiru osagai horiek aztertu beharko lirateke lehenbizi.



|||||nerea sancholli|||

|||Ezinbestekoa da bikotekidea ez izatea gure lagun, konfidente edota plan bakarra

|||Plax! Sexu eta bikote aholkularitza:  
Sindikatu Zaharra, 2. solairua  
[www.azpeitikoudala.com/sexu](http://www.azpeitikoudala.com/sexu) 688897920

Gizon eta emakume gehienok jeloskortasun maila handi edo txikiago batekin elkarbizi behar izaten dugu. Hori horrela izanik, hainbat helburu lortzea lagungarri suertatzen da, hala nola, ezjakitasun maila batekin bizitzea. Horrek esan nahi du gure bikotekidearen bizitzaren episodio, sentimendu, pentsamendu guzti-guztiak ez ditugula ezagutuko onartzea, eta misterioaren parte bat izatea.

Onartzen badugu gure bikotekideari beste gizon edota emakume batzuk ere gustatzen zaizkiola, bere fantasien parte direla... lasaigo bizitzeko aurrerapauso bat izan daiteke.

Ezinbestekoa da gure bikotekidea ez izatea gure lagun bakarra, gure konfidente bakarra, gure plan bakarra. Beste hainbat lagun –bai neska edo bai mutil–, plan, talderen parte izatea eta guk haietan gu geu izateko eta maitasun mota desberdinak adierazteko aukera izatean, gure bikotekidearen mundua ere zabala eta aberatsa izatea onargarriago irudituko zaigu ziurrenik.

Jeloskortasunaren sorgin-gurpilean harapatuta bazaudete, eska ezazue laguntza irteera topatzeko!\*



# Zorionak!

**Ezberdinak elkartuz,  
ilusioa piztea lortu dugu.**




**Herri bat gara, erabakitzeko eskubidea dugu,  
herritarron garaia da.**

**2014ko ekainak 8, Durango-Iruñea giza-katea.**



**Azpeitiko Gure Esku Dago**

# Energia hizpide

Sanagustin kultur-guneak, Elkar-ekinek, Gaztetxeak eta Piztuk antolatutako Energia Jardunaldien baitan bi hitzaldi izango dira ekainean eta uztailean.  Julene Frantzesena

**E**nergia Jardunaldiak antolatu dituzte ekainerako eta uztaile-rako, Sanagustin kultur-guneak, Elkar-ekinek, Azpeitiko Gaztetxeak eta Piztu taldeak elkarlanean.

Bi hitzaldik osatuko dituzte jardunaldiak, eta aurrea ekainaren 25ean, asteazkena, izango da. GoiEner kooperatibako kideak Sanagustin kultur-gunean izango dira kooperatibaren gaineko azalpenak eta proiektuaren nondik norakoak azaltzen, 19:00etatik aurrera.

GoiEner energia berriztagarrien sorkuntza eta erosle kooperatiba da, eta ez du irabazi asmorik. Enpresako bazkideen hitzetan, "subiranotasun energetikoa" du helburu: "Hiritarrek oinarrizko ondasun horrekiko kontrola berreskuratzea, bere garrantziaz jabetzea nahiz energiaren kontsu-

## ||| DATUAK |||||

||| **Zer.** GoiEner-en inguruko hitzaldia. ||| **Eguna.** Ekainak 25 (asteazkena). ||| **Ordua.** 19:00 ||| **Tokia.** Sanagustin kultur-gunea. ||| **Antolatzaileak.** Sanagustin, Elkar-ekin, Gaztetxea eta Piztu.

mo arduratsua eta iraunkorra bultzatzea ditugu xede".

## 'Fracking'-az hitzaldia

Jardunaldien baitako bigarren hitzaldia uztailearen hasieran izango da. Data, toki eta ordua zehaztu gabe badituzte ere, solasaldiaren gaia finkatu dute antolatzaileek. Azken boladan hainbeste entzuten den 'fracking'-a edo haustura hidraulikoa izango dute hizpide.\*

## ||| ENERGIA JARDUNALDIAK |||||

**1.727** bazkide ditu GoiEner kooperatibak.

**2** hitzaldi. Jardunaldien baitan bi hitzaldi izango dira.\*

## ||| BESTERIK |||||

### 1 Talde handien txanda

Apirilean jokatu zen alebin mutilen Azpeitia Cup txapelketaren aurretiko fasea, eta orduan sailkatutako lau taldeak, beste 18 handirekin ariko dira lehian.

||| **Eguna.** Ekainak 13, 14 eta 15.

||| **Tokia.** Garmendipe futbol zelaia. ||| **Antolatzailea.** Azpeitia Cup.

### 2 Sanjoanak, Urrestillan eta Oñatzen

Urteko egunik luzeenetan (edo gaurik motzenetan) festa giroa izaten da nagusi Urrestillan eta Oñatzen. Aurten ere egitarau oparoa prestatu dute bi auzoetan, festetarako. Krosa, bazkaria, kontzertuak, mezak, azoka, afariak... izango dira sanjoanetan.

||| **Eguna.** Urrestillan: ekainak 14, 15, 20, 21, 23, 24 eta 25.

Oñatzen: ekainak 22 eta 24.

### 3 Antzerki Topaketetako kartelak ikusgai

2014an Azpeitian egingo diren XXXII. Euskal Antzerki Topaketak iragartzeko kartelen lehiaketara aurkeztu dituzten lan guztiekin erakusketa osatuko dute.

||| **Eguna.** Ekainaren 11tik 22ra.

||| **Ordua.** Astegunak: 18:00-20:00. Asteburuak: 12:00-14:00. ||| **Tokia.** Betharrameko aretoa.\*



**goiener**

Energia berriztagarrien sorkuntza eta erosle kooperatiba



Bazkide egin nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan aukera hauetako baten bitartez:

- **uztarriabazkideza@gmail.com**
- Telefonoa: **943 15 03 58**
- Bulegoko helbidea, Perez Arregi 1, behea
- **www.uztarria.com** webgunean, kontaktu formularioaren bitartez



HITZ GEZIDUNAK

	Uretako	▼	Ontzat hartu	▼	Lasarteko	▼	Gaioxotasunak	▼	Artilezko objektu
	* Deitura		Harkaitza		Itsas gaineko seinalea		Arkuaren erdian		
		▶		▼		▼		▼	
	Baldar	▶							
Arabako udalerria	▼	San Mames esaterako	▶	▼			Egoskin mota	▶	
Zuberoakoak		Erabat busti					Letoniako hiriburua		
								▼	
Edo	▶			Errep., txori mota	▶		Tuberkulosi	▶	
Oso-oso garbia				Zaren hori			Zeini		
						Urtaro hotz		▼	
						Gar			Jardun
Sos	▶				Apaizen jantzia	▶	▼		
Ugatz					Azkena eta lehena				▼
					Enborraren mamia	▶	▼		
					Bokal biribila			Ez eme	▶
								Bokala	
Bizilaguna	▶					Zabaldu	▶		
								▼	

Egilea: Luma

\* Liburuzain azpeitiarra

SUDOKUA

					9		1
5					8		
8			7	9	2		
		1	3				9
	6		4	1		7	
9				6	1		
		8	9	3			5
		5					2
6		7					

**ANTONIO RAFANIELLO**  
**HORTZ KLINIKA**

**Titaniozko inplanteak: 295 €** tik hasita

- Aseguruekin lan egiten dugu  
 - Finantziario pertsonalizatua

[www.antoniorafaniello.com](http://www.antoniorafaniello.com)  
 Enparan kalea, 8-1. Azpeitia 943 816736

|||UZTARRIA SUKALDEAN. HIL HONETAN...|||

**BABA HANDIAK BAKAILAO KOKOTXA ETA PORRUSALDAREKIN, LARRAÑAGA HOTELEAN OSAGIAK**

- Baba handiak
- Bakailao kokotxak
- Porruak
- Patatak
- Azenarioak
- Piper gorria
- Piper berdea
- Kalabazina



**NOLA EGIN**

Zuritu eta egosi ondoren, baba handiak tipula pixka batekin gisatuko ditugu. Beste ontzi batean, patatak eta porruak egosiko ditugu, 15-20 bat minutuz. Horiek egosita daudenean, turmixarekin xeheitu eta gero iragazi egingo ditugu.

Kokotxak, berriz, zartagin batean egingo ditugu, oliotan eta gainerako barazkiekin batera.

**NOLA AURKEZTU**

Plater atal bat erabiliko dugu eta horren erdian jarriko ditugu egositako baba handiak, borobil-dutako tontor bat osatuz. Baben gainean jarriko ditugu kokotxak. Platera osatzeko eta apaintzeko erabiliko ditugu aurrez egindako barazkiak eta porrusalda. Perrexil sortatxo bat ere erabil dezakegu, kokotxen eta baben gainean jarrita, platera aurkezterakoan.



|||LEHIAKETAN ERANTZUTTEKO EPEA. Ekainak 23 (astelehena) |||NORA BIDALI ZURE ERANTZUNA. Perez Arregi plaza 1, behea. Azpeitia edo uztarrisukaldean@gmail.com ||| IRABAZLEARI SARIA. Larrañaga Hotelean bi lagunentzat afaria edo bazkaria |||PARTE HARTZEKO BALDINTZA. Uztarría Komunikazio Taldean bazkide izan behar da. |||BIDALI ZURE GUSTUKO ERREZETA, PLATERAREKIN AGERTZEN ZAREN ARGAZKI ETA GUZTI. EZ AHAZTU ZURE IZEN-ABIZENAK ETA TELEFONO ZENBAKIA JARTZEA!

|||SOLUZIOAK|||

HITZ GEZIDUNAK

●	A	U	Z	O	A	●	I	R	E	K	I	
T	I	T	I	Z	U	R	A	●	A	R		
●	D	I	R	U	●	S	O	T	A	N	A	
A	R	A	T	Z	A	●	N	E	G	U	●	
●	A	L	A	●	K	U	●	T	I	S	I	
Z	U	B	E	R	O	T	A	R	A	R	A	K
●	G	●	B	A	R	R	I	A	●	T	E	
●	T	R	A	U	S	K	I	L	●	●	●	
A	R	A	N	B	A	R	I	●	●	●	●	
●	E	●	L	●	O	●	U	●	●	●	●	

SUDOKUA

4	8	3	5	2	1	7	6	9	4
2	9	6	4	7	8	5	3	1	2
5	1	7	3	6	9	8	4	2	5
3	8	4	5	7	6	1	2	3	9
8	6	2	4	9	1	5	7	8	3
9	7	5	1	3	8	2	4	6	9
6	8	1	3	7	5	9	2	4	6
7	2	9	6	1	4	8	3	7	5
1	4	7	6	2	3	8	9	5	1

|||UZTARRIAREN MAIATZEKO LEHIAKETA|||

IRABAZLEA



**Mari Karmen Borda**  
Uztarriako bazkidea da 'Uztarría sukaldetan' lehiaketaren 161. irabazlea. Buztana saltsan da prestatu duen errezeta.  
**Jai-Alai jatetxean** bi lagunentzako otordua irabazi du. Argazkian irabazlea, prestatu duen platerarekin.

|||UZTARRIA.COM|||||

## Munduko udalerririk euskaldunenean egiten diren gauzak

**A**zpeitia da 5.000 biztanletik gorako munduko udalerririk euskaldunena". Hori esatea nahikoa da herritar guztiak, harrotasunez, elkarri zorionak ematen hasteko; beste behin, azpeitiarrak garela ozen adierazteko. ETB 1-eko *Tri-buaren Berbak* saioa baieztatu zuten gu garela munduko euskaldunenak, eta pozez hartu genuen berria.

Uste dut ez dela gure lorpena "munduko udalerririk euskaldunena" izatea. Pentsatzen dut ez digula aparteko lanik eskatu herria euskalduntzeak. Gutako asko jaio gara euskaraz, eta hazi eta hezi gaituzte euskaraz. Eskura eman digute gure altxorra; salbuespenak salbuespen, ez diogu aparteko konpromisorik eskaini, ez mimorik, ezta babesik ere. Baina, beno, zorionak udalerririk euskaldunena izateagatik.

### |||Aparteko lanik ez digu eskatu herria euskalduntzeak

Herritarrek haserraraziko ditut, badakit, baina ezin nuen hau barruan gorde. Munduko udalerririk euskaldunenean gaztelaniaz irakurtzen dugu egunkaria. Munduko udalerririk euskaldunenean, gaztelaniaz ikusten dugu telebista. Munduko udalerririk euskaldunenean, gaztelaniaz hitz egiten diegu gaztelaniaz ez dakiten etorkinei. Munduko udalerririk euskaldunenean ez gara saiatu ere egiten errenta aitortpena euskaraz egiten. Munduko udalerririk euskaldunenean taberna guztietan, larunbat gauetan, gaztelaniazko abestiekin dantza egiten dugu. Munduko udalerririk euskaldunenean gaztelaniaz hitz egiten dugu me-

dikuarekin. Munduko udalerririk euskaldunenean, ez daki euskaraz udaltzaingoen harrera lekuan egoten den langileak. Ez naiz ari herritar guztiez hizketan, eta barkamena eskatu nahi diet benetan zoriontzea merezi dutenei.

Horrenbestez, aukera probestuko dut zorionak emateko benetan eman behar zaien: euskara ikasten ari diren herritar guztiei, beraien sorterrira atzean utzita, hona etorri eta gure hizkuntzaren zirkulura sartu direnei, lantokian euskara erabiltzen saiatzen diren enpresariei eta langileei; egunerokoan, kontzienteki, euskaraz bizitzea hautatzen dutenei, euskara sustatzeko politiken alde lanean ari direnei, eta abar. Zorionak zuei, azpeitiarrak zaretenoi eta ez zaretenoi.

|||||eneritz albizu|||||

|||EFEMERIDEAK|||||

## 1912

**Musika banda desegitear.** Musika bandak arautegi berria onartu ez zuenez, Udalak taldea desegitea erabaki zuen.

## 1969

**Ekaingo margoak.** Antxieta Taldeko sortzaile eta kide Andoni Albizurik eta Rafael Rezabalek Ekaingo margoak aurkitu zituzten.

📌 **Iturria:** *Azpeitiko efemerideak.* Herria historian zehar liburua.

|||Egilea:

 Imanol Elias Odriozola.

|||Argitaratzailea:

 Uztarrria Kultur Koordinakundea.\*

|||BIDEOAK|||||



Eskolartekoan bertsoan.\*

# uztarrria.com

Azpeitiko ataye

- Eguneko albisteak - Herritarren iritziak - Komunitatea - Bideoak
- Inkestak - Agenda - Bitxikeriak - Uztarrria aldizkari guztiak
- Uztarriaren produktu guztiak - Efemerideak
- Azpeitia atala: zerbitzu publikoen ordutegiak, telefono zenbakiak, festak, hauteskude-emaitza guztiak, herriko taldeak...
- Gida komertziala: herriko denda guztien telefono eta helbideak

sartu eta parte hartu

## Egunero 3.000 bisita inguru



# Zainzuriak

**Z**ainzuri landarearen zurtoin gazte eta bigunak dira zainzuriak.

Zainzuri zuria lur azpian hazten da eta, argi izpirik jasotzen ez duenez, klorofilarik ez du garatzen. Zainzuri berdea, aldiz, eguzkiarekin kontaktuan hazten da eta klorofila garatzen du, horregatik du kolore berdea.

Ur kantitate handia dute eta kaloria oso gutxi. Zuntz asko ere badute eta horregatik idorrieria duten pertsonentzat oso gomendagarriak dira zainzuriak. Gainera, grasa eta azukre kantitate oso-oso gutxi dute.

Zainzuri zuriek berdeek baino bitamina gutxiago dute, batik bat C bitamina eta folatoak. Eta kontserbakoek, berriz, freskoek baino mineral gutxiago izaten dute, sodioa izan ezik.

Beraz, zainzuri freskoak osasuntsuagoak dira, gatz gutxiago dutelako. Hipertentsioa duten pertsonen kontserbakoen kontsumoa mugatu egin behar dute eta, zainzuriak jan nahi dituztenean, freskoak aukeratu.

Purinak ere badituzte zainzuriak eta, horrenbestez, hezueria edo gota deritzon gaitza izaten duten pertsonen kontuz jan behar dituzte.

Jan zainzuri freskoak udaberrian!\*



|||||||aitziber aizpuru|||

# JOSU GALARRAGA sindikalista



### 1. Lanpetuta?

Oso, eta krisiari lotutako lanarekin: kaleratzeak, LET-ak... Sintoma txarra.

### 2. Enpresari denak berdinak al dira?

Ezta gutxiagorik ere. Denetik dago, langileen artean bezala.

### 3. Sindikatuek zer dute eskaintzeko?

Erreminta bat gara. Antolatu gabe ez dago ezer.

### 4. Zaharkituta ez?

Iritzi horrekin ez nago batere ados.

### 5. Grebak: zertarako?

Zenbaitek uste ez arren, eragingarriak dira.

### 6. Sindikalista baten amesgaiztoa?

Ahaleginak ahalegin, enpresa bat itxia.

### 7. Eta ametsa?

Enplegu duina sortzea.\*

✉ Mailo Oiarzabal

**Ekain**  
ALBAITARI KLINIKA

Euskal Herria, 34  
20730 AZPEITIA  
Tel.: 943 15 16 40

Lamaldiak:  
943 15 16 40

**ostadar optika**  
OPTIKAK - OPTOMETRISTAK

Jose de Artxe, 17  
Tel. 943-810664  
AZPEITIA

Ibai Ondo, 28  
Tel. 943-850445  
AZKOITIA

**Koh Tao**

OSAGARRIAK

Foru Ibilbidea, 3 • Tel.: 629 688 193  
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)

**lentzeria mertzeria**

jose artexe, 16

nabar

**ORDULARI**

Jose de Artxe, 10  
Tel. 943 81 52 44  
20730 AZPEITIA

**uba**  
aholkularitza

Aholkularitza  
Tiketa  
laborala  
kontablea

Gestori lanak  
Finanzen administrazioa  
Gestio inbiliarria

Tel: 943 157 329 Fax: 943 157 273  
Euzkara, 41 • www.ubakolnabak.es

**KIRURI**

JATETXE

Loiola hiribidea, 24  
LOIOLA - AZPEITIA

Tlfnoa.: 943 81 59 08  
Faxa.: 943 15 03 62

arte eta diseinu ikastegia

**di**

- Dibujo eta eskulanak (haurrak) 17:30/19:00
- Pintura 17:30/19:00
- Talla 19:30/21:00

Jose Artxe kalea, 3  
669 414 025 - 943812808  
matrikula urte gutzian zabalik

# Kartzela eta etxe

Epaitegia eta kartzela hartzeko eraiki zuten gaur egun anbulatorioarena den eraikina, orain dela 125 urte.

Jose Luis Zendoiak ondo ezagutzen du. 📌 Mailo Oiarzabal



**1.** Goitik hartutako irudian, kartzelako teilatua zulatuta ikusten da. **2.** Epaitegiaren gela nagusia zena. **3.** Kartzelaren egoitza, barruko patiotik.



Epaitegi eta kartzelaren argazki hau Patxo erretegiaren barruan dago, Angel Rodriguezek utzita.

**A**zpeitiar gehienek bezala, herriko anbulatorioa ondo ezagutzen du Jose Luis Zendoia Aramendik (Azpeitia, 1951). Beste milaka herrikideri bezala, osasun zentrorra joatea behin baino gehiagotan egokitu zaio. Gainerako erabiltzaileak ez bezala, ordea, anbulatorioiko atea zeharkatzen diuen bakoitzean jaiotetxera itzultzen da Zendoia, eraikin horretan etorri zelako mundura, eta bertan egin zuelako bizitzaren heren bat. 1985ean inauguratu zuten gaur egungo anbulatorioa, urteetan hutsik egondako eraikin zaharra eraberritu eta egokitu ondoren; herriko epaitegia eta kartzela izandakoaren tokian, alegia. 2014an 125 urte beteko ditu eraikinak: 1889an ireki zituzten han epaitegiak eta kartzela.

Laurogei urtetik gora egon zen martxan epaitegiaren eta herriko azken kartzela izango zenaren egoitza, 1970eko hamarkadaren lehen urteak arte. "Guk handik alde egin genuela 42 urte-edo izango dira. Kartzela orduan itxiko zuten. Gu Garmendira joan ginen bizitzera. Itzultzen ginen kartzela zaharrera, txakurrak eta trasteak-eta han genituelako", dio Jose Luis Zendoiak.

### Presoak etxeko

Zendoia Aramendi familia kartzela zahararen azken urteetan bizi izan zen han. Luciok, Jose Luisen aitak, epaitegirako egiten zuen lan eta, horrekin batera, "preso zeudenen zaintza ere bere kontu zegoen, jatorduak eta". Carmen Aramendi emaztearekin, hantxe izan eta hazi zituzten bi semeak, kartzelako eraikinaren lehen solairuan zuten etxebizitzan.

Gaur egun anbulatorioa herriko erdigunean dagoela esan daiteke, baina kartzela zaharra eta epaitegiak eraiki zituztenean, eta urte luzez, herriaren kanpoaldean kokatuta zeuden. "Herri aldera Goiko Errota zegoen gertuena. Bestaldera, Perdillegi baserria, eta gainontzean baratzeak eta soroak besterik ez genituen bueltan", gogoratzen du Zendoiak.

Eraikinaren egitura ere ez zen egun anbulatorioak duen berbera; multzo berean, baina bi eraikinetan bereizita zeuden epaitegiak eta kartzela. "Aurrekaldean epaitegiak zeuden, gero tarte bat eta, atzekaldean, kartzela. Kartzelak sotoa zeukan, beheko solairua eta



Jose Luis Zendoia, garai bateko kartzela eta egungo anbulatorioaren aurrean. ||| M. Oiarzabal

## Azken 'presoa'

||| Erreportaje hau osatzen duten hiru argazki txikiak —ezkerreko orrialdekoak— Agustin Arenasek utzitakoak dira.

1983an atera zituen Arenasek, Jose Mari Bastida alkateak eskatuta. Erabat hondatutako eraikina erakusten dute irudiok, anbulatorioa han jarri baino urte gutxi lehenago zuen itxura, hain zuzen.

Argazki horiek ateratzen ari zela kartzela zaharrean itxita utzi zuten Arenas; han zebilela konturatu ez, eta norbaitek atea giltzatu. "Ni izango nintzen hango azken presoa", dio argazkilarik.

beste bi solairu. Gu bizi ginen etxea kenduta, solairu guztietan bueltan-bueltan zeuden ziegak; sotoan ere bai, baina neuk han ez nuen presorik ezagutu. Gure gurasoak zumitz-lanean ere jarduten ziren, eta hori bigarren solairuan egiten zuten".

"Neuk 10-12 urte nituen arte ezagutu nituen presoak kartzelan", dio Zendoiak. 1960ko aurreneko urteetatik aurrera, beraz, ziegak hutsik egongo ziren. Dena den, kalabozo guztiak beteta ere ez zituela ezagutu dio kartzela zaharrean jaio eta hazitako azpeitiarrak. "Ia etengabe egoten zen presoren bat, baina behin ere ez asko; inoiz hiruzpalau ere bai". Denbora asko ere ez zuten egiten han, normalean: "Lapurretak, borrokak... ho-

rrelakoak izaten ziren delitu gehienak. Kondena luzeagoak zituztenak egun batzutan hemen eduki ondoren Martutenera eramaten zituzten. Nik gogoan dudala, behinik behin, hemen denbora gehien egiten zutenek asko jota hilabete bat-edo egiten zuten ziegetan".

Gaur egun kartzeletako bizimodua irudikatzen denean nekez imajina daitezkeen bizipenak gordetzen ditu Jose Luis Zendoiak, haurtzaroko oroitzapen gozo bezala kontatzen dituenak. "Lo ere eginda gaude gu, presoekin", botatzen du. "Hemengoak zirenean, herrikoak edo inguruetaoak, ezagunak, gauez etxera etortzen ziren. Han egoten ginen, sukaldetan, karta-jokoan eta. Kanpoko jendea ere egoten zen preso, baina haiekin ez zegoen halakorik, ezagunekin bakarrik". Kartzelan al-darea zeukaten, eta igandero meza ematera joaten zitzairen Aita Puig jesuita ere gogoan dauka, "bere poltsatxoarekin, estanpekin eta pikoekin". Jolasleku aparta ere izan zen kartzela zaharra Jose Luis haurarentzat eta haren lagunentzat, hala dio berak: "Lagun gehienak hara joaten ziren jolasera. Nahikoa toki zegoen han, erregalatzeko adina leku, ikustekoa zen polita".

### Kronika beltza

Oroitzapen ilunagoak dakartzaten gertaerak ere badira, ordea; eta nola ez, kartzela batez arituta. 1936ko gerraren eta ondorengo urteetan, esaterako, dozenaka herritar igaro ziren hamarkada eskas batzuk beranduago erdi hutsik gelditu ziren Azpeitiko kartzelako ziegetatik.

XIX. mendearen azken hatsetan Azpeitiko kartzelan egon zen preso Jose Tejeria ere. Aiako Muatz baserriko semea aita hiltzeagatik atxilotu zuten, 1898an. Eta Azpeitian bertan, kartzelatik gertu prestatutako urkamendian, garrotez hil zuten, 1900eko urtarillaren 16an. Orduko berripaperen arabera, sei mila lagun elkartu ziren, Muatzen heriotza ikustera. Azpeitian burututako azken ekuzioa izan omen zen Aiakoarena.

Beste hilketa kasu ezagun batean parte hartu izana egotzita, hainbat lagun torturapean preso eduki zituzten kartzela zaharrean. 1926ko azaroaren 14an, Beizamako Korosagasti baserriko ama eta alaba labankadaz hil zituzten, eta krimen latzaren egilearen bila sorgin-ehiza izugarria eratu zen ondorengo aste eta hilabeteetan, Azpeitiko Marroquin epailearen gidaritzapean. Epaitu eta kondanatutakoak ere izan ziren, baita haiek denbora gutxira libre utzi ere. Eta *Beizamako krimen* famatuak argitu gabe darrai.★

## TELEFONO ZENBAKIAK

### TOKI PUBLIKOAK

Udaletxea	15 72 00
Udaltzaingoa	15 13 13
Suhiltzaileak	112
Azpeitia Lantzen	15 71 83
Iraurgi Lantzen	85 11 00
Nekazal Bulegoa	81 24 85
Iturritxiki Ludoteka	15 11 79
Zapo Txoko / GIB	15 71 61
Lanbide	15 04 02
Kiroldegia	81 30 69
Igerilekua	81 41 21
Emakumeen Txokoa	15 70 55
Ertzaintza-Azkoitia	08 37 80
Baigera I	81 51 71
Baigera II	81 23 89
Epaitegia	02 51 91
Ingurumen Etxea	81 24 48

### OSASUNA

Anbulatorioa	02 54 00
Anbulator. larrialdiak	02 54 01
Eguneko zentroa	15 74 96
Asepeyo	81 44 00
Gurutze Gorria	85 32 97
DYA-Donostia	46 46 22

### KOMUNIKABIDEAK

Uztarria	15 03 58
Hitza (Azpeitia)	81 38 41
Hitza (Zarautz)	89 00 17
Azpeitian Zer?	08 06 88
Erla Telebista (Azpeitia)	81 53 35
Berria	943 30 40 30
Gara	943 31 69 99
Noticias (berriemaileak)	687 60 50 06
DV (berriemaileak)	610 81 29 12
Argia	943 37 15 45
Arrate Irratia	943 12 01 73
Euskadi Irratia	943 01 23 00
ETB	943 01 17 05

### ALDERDI POLITIKOAK

Bildu	15 72 00	BESTERIK	
EAJ	81 55 70	Xoxoteko aterpea	58 10 07
Sortu	15 72 00	Eregi	943 08 06 88

## FARMAZIAK (EKAINA)

### EGUNEZ

1-3-10-16-21-22-25-27	2-7-8-13-19	4-9-14-15-20-26	5-11-17-23-28-29	11-17-22-23-25
Aranburu (Azpeitia).	Eizagirre (Azpeitia).	Jacome (Azpeitia).	Beristain (Azpeitia).	Alberdi (Azpeitia).
943 811350	943 811274	943 080258	943 811949	943 815974

### GAUEZ

1-3-16-21-22-	2-7-8-19	4-20	5-17	6-18-30	9-27-28-29	10-11-14-15-23	12-24-25	13-26
Aranburu (Azpeitia).	Eizagirre (Azpeitia).	Jacome (Azpeitia).	Beristain (Azpeitia).	Alberdi (Azpeitia).	Azpiazu (Azkoitia).	Gisasola (Azkoitia).	Ruiz (Azkoitia).	Jaen (Azkoitia).
943 811350	943 811274	943 080258	943 811949	943 815974	943 852989	943 851235	943 851966	943 850660

### LARRIALDIAK

# 112

### ODOL-EMAILEAK

Ekainaren 25ean izango dute hitzordua, 17:00etatik 21:00etara, anbulatorioan.

EA	81 00 11
Aralar	647 42 59 95
Hamaikabat	15 72 00
ELA	81 34 46
LAB	15 13 56
EHNE	81 39 28

### SINDIKATUAK

Sanagustin	10 52 20
Kultur Mahaia	674 16 56 84
Euskara Patronatua	81 45 18
Udal Euskaltegia	81 19 47
AEK	15 10 89
EHE	15 10 89
Udal Liburutegia	15 71 95
Loiolako Liburutegia	81 65 08
Kontseilua	943 59 12 00
Bai Euskarari	902 43 00 26

### IKASTETXEAK

Iraurgi (Betharram)	81 16 68
Iraurgi (Milagrosa)	81 63 80
Iraurgi (Jesuitinak)	81 22 49
Ikasberri	15 12 46
Karmelo Etxegarai	81 26 97
Urola BHI	15 02 28
Uztaro	81 31 90

## ORDUTEGIAK

**UDALETXEA** || Astegunak: 08:30-14:00 || Larunbata: 09:00-12:30 **UDALTZAINGOA** || Egun osoz irekita egoten da **ANBULATEGIA** || Egun osoz irekita egoten da **IGERILEKUA** || Astelehena: 14:00-21:00 || Beste astegunak: 07:00-21:00 || Larunbata: 10:00-13:00 eta 16:00-20:00 || Igande eta jaiegunak: 09:00-13:00 || Kanpoko igerilekua: ekainaren 14tik irailaren 14ra, egunero, 11:00-20:00 **KIROLDEGIA** || Astegunak: 10:00-13:00, 15:00-21:00 || Larunbata: 10:00-13:00, 16:00-20:00 **UDAL LIBURUTEGIA** || Astegunak: 09:30-13:00, 16:00-20:00 || Larunbata: 09:30-13:00 || Udan, Gabonetan: 08:30-14:00 **ZAPO TXOKO** || Astearte-ostirala: 17:00-20:30 || Larunbata: 16:00-20:30

## ERABILGARRI



### ▲ KANPOA PREST.

Estaligabeko igerilekuak ekainaren 14an zabalduko ditu ateak. Irailaren 14ra arte egongo da irekita, egunero, 11:00etatik 20:00etara bitartean. Sarrerren prezioak izazkoen berdinak izango dira.

## GARRAIOA

ALDALUR	943 85 27 18
EUSKO TREN	902 54 32 10
GUIPUZCOANA	943 85 11 59
PESA	943 21 26 99
PIPER ELKARTEA	943 85 25 87
TAXIAK	943 81 13 07

|| autobusen ordutegi osoa:

[www.uztarria.com/azpeitia/](http://www.uztarria.com/azpeitia/)  
autobusak

# IRAI BEREZIARTUA

Brusela, Belgika

“musika klasikoko eskaintza zabala zagon hemen”

Biolineko ikasketei jarraipena emateko joan zen Bruselara Bereziartua. Udan bueltatuko da, oporretara. 📌 **Julene Frantzesena**

**N**olatan bizi haiz Belgikan?

Musikenen (Donostia) biolineko karrera bukatu nintan iazko ekainean, eta ikasten jarraitzeko gogoaz nuenez, masterra hasteko frogak egin nitin Bruselan. Onartu egin ninduten, eta hemen nagon Bruselan, irail erdi aldietik. Datorren urtean ere bertan izango naun, masterra bi urtekoa dun eta.

**Ohitu al haiz horko bizimodura?**

Egia esan, ez dinat arazorik izan bertako bizimodura ohitzeko. Jateko ordutegia desberdina dun, baina gainerakoan ez zaidan oso desberdina irudit.

**Nolakoa dun Belgikako jendea?**

Ez dinat Brusela bertako ia inor ezagutzen, leku askotako ikasleak gauden eta hemen. Belgikarrak, orokorrean, laguntzeko prest zauden, eta hizkuntza asko dakizkitenez, ez zagon elkar ulertzeko arazo handirik.

**Azpeitiak ez duen zer din horrek?**

Hiri baten aukerak ditin Bruselak, eta nire ikasketekin lotuta, musika klasikoko eskaintza zabala zagon hemen. Kontzertu asko eta oso onak egoten ditun ia eguner.

**Zer gustatzen zain gehien? Gutxi?**

Ez naun oso originala, baina gehien gustatzen zaizkidan gauzak txokolatea eta garga-gardoa ditun. Baita kultura eskaintza zabala ere. Gutxi, berriz, zikintasuna. Orokorrean, hiri zikina dun Brusela. Zaindu gabea.

**Faltan botatzen al dun Azpeitia?**


Egia esan, oso gustura nagon hemen, eta gehien ere bi hilabete egon naun Azpeitira joan gabe edo bisitarik jaso gabe. Faltan botatzen hasterako hor izaten naun. Dena den, momentu batzutan, jendeaz eta hizkuntzaz aparte, eta Azpeitian ere ez dagoen arren, itsasoa botatzen dinat faltan. Janaria ere bai.

**Euskal Herriaz ba al zakin ezer horko jendeak?**

Leku askotako ikasleak gauden hemen, eta denetik zagon. Nire irakasleek, adibidez, zerbait bazekiten Donostian edo Bilbon izandakoak direlako kontzerturen bat eskaintzen, eta galderak egin izan zizkidaten.

**Azpeitiarrak toki guztietan gaudela zioten. Ba al zagon azpeitiarrik hor?**

Azpeitiarrak bazauden, baina ez dinat beraiekin topo egin. Euskaldunak bazauden, baita nire kontserbatorioan bertan ere.✘



1. Bruselako Gran Placen. 2. Kontzertu baten ostean, bi lagunekin. 3. Elena pisukidearekin, kalean.

1.576 kilometrora dago Brusela.



3

# 1936 uztailak 19

**I**gandeetan kanpora joateko ohitura genuen gurasoen lagunekin. Bizpahiru familia biltzen ginen, larriak alde batetik, gu –umeok–, bestetik. Azukre fabrikaren atzeko soroetara joaten ginen, trenbide bazterretik. Uztailaren 19an Langraizera joango ginela esan ziguten. Gure osabak lagun bat zuen han, zentral elektrikoa zegoen etxean, orainxe artetxe kartzela izan den horretan. (Orainxe artetxe kartzela, eta, lehenago, kontzentrazio-esparrua). Inork ez zuen autorik eta, hortaz, ume txikiak hartu eta Logroñora zihoan autobusean joan ziren emakumeak. Gu, berriz –sei urte nik 1936 hartan–, gizonak eraman gintuzten, bizikletako barran. Andreak eta umeak goizean goizago joan zirenez gero, gu mezatara joan ginen, San Antonio kaleko Reparadoras komentura. Handik irteterakoan, korneta hotsa. Ejertzittoa zen! Dato kalera joan ginen, abantadan, eta Arka plazan, soldadu talde bat, musika banda eta guzti, bandoa jotzen: gerra!... Nik sei urte, esan dut, eta ez nintzen askorik konturatu horrek zer esan nahi zuen, baina gogoan dut irudi bat: gure aita eta gure osaba Alfredo, hizketan, zer egin, zer ez egin erabaki ezinda. “Goazen Langraizera! Andreak eta umeak han daude!”. Eta halaxe joan ginen Langraizera, sorora, egunpasa, eta halaxe eman genuen gerra zabaldu zen eguna. Hura eguzkia, hura beroa, hura da egosi! Gorri-gorri eginda itzuli ginen Gasteiza. Aurretik, arratsaldeko seietan, kaminora irten ginen, autobusaren zain. Seiak, sei eta erdiak, zazpiak laurden gutxi... autobusa azaltzen ez! Inor ez! “Egia izango da gerra dagoena!”. Halako batean, horratik!, hantxe autobusa. “Autobusa, autobusa!”. Bai, guk espero genuen autobusa zen, baina ez zen gelditu. Txoferra eta bi soldadu ikusi genituen, fusila eskuetan. Oinez itzuli behar izan ginen. Hura panorama! Ume txikiak, leher eginda. Gu ere, nekatuta... Ariñiz herritik pasatzerakoan, auto bat, txistu-tuan. Barruko batek ukabila atera eta orro



■■■■■■■■■■miel a. elustondo■■■■■■■■■■

■■■ San Prudentzio kaleko etxera ailegatzan ari ginela, tiro hotsa Dato kalean! Orduantxe beldurtu ginen!

egin zuen: “Biba Rusia!”. “Zer ari da hori, ordea?”, guk, ez genuen-eta ezer entenditzen. San Prudentzio kaleko etxera ailegatzan ari ginela, tiro hotsa Dato kalean! Orduantxe beldurtu ginen! Nola edo hala etxera sartu ginen, behintzat. Gero jakin nuenez, Lubianoko bi nekazarik jo zituzten tiroak. Ikurri-na bati su eman eta arrastaka ibili zuten Dato kalean barrena. Hurrengo egunean hasi ginen konturatzen zer zen gerra: jendea harutz eta honutz, batzuek ihes egin zuten, beste batzuek ezkutatu egin ziren, batzuk gudari joan ziren, beste batzuk atxilo hartu zituzten... Jende asko, etxean zeuzkan paperak txikitzen eta erretzen, gauzak gordetzen... eta baten batzuek txaketa aldatu zuten. Hori ere bai. Egun batetik bestera, faxistak nagusi egin ziren. PNVren etxea itxi zuten. Ordu arteko eskola ere, ahazteko esan ziguten. Gerra etorri zen, eta, gerrarekin, klandestinitatea jende askorentzat...”.

(Andoni Perez Cuadradorek lekukotasuna).\*



# URBISTONDO MARGOAK



Eta zuk, margotu ala dekoratu?

Edozein kolore, edozein azalera

Kolore guztiak berehala prest!

**MONTÖ**  
mix system

Salbe auzunea 35- Azpeitia- TELF: 943 81 57 81- [urbistondomargoak@euskalnet.net](mailto:urbistondomargoak@euskalnet.net)

## ETXERAKO edo ENPRESARAKO:

- Arreta pertsonalizatua
- Segurtasuna ADSL, telefono finko eta mugikorren kontratuetan  
eta
- Salmenta ondorengo doako zerbitzua nahi badituzu

## EGIN ZURE KONTRATUA DENDAN!

Banatzaille baimendua

# JAZZTEL



MUGIKORRENTZAT ZORRO eta BABESKIAK/ BATERIA, KARGATZAILEAK / TABLETAK  
TELEFONO ASKEAK/ TINTA BATERAGARRIAK/ EDOZEIN OPERADOREREN KARGAKETAK  
MUGIKORREN ASKATZEAK eta KONPONKETAK / CANAL +



ZATOZ AZPEITIKO DENDARA

Foru ibilbidea 5zkoa

Telf: 943 56 96 96

IREKIERA BERRIA BEASAINEN

Nagusia 21 zkoa

Telf: 943 98 89 59

**TOP  
MÓVIL**

## Asko dira gure hortz-kliniketara etortzeko arrazoiak



**20.000tik GORA PAZIENTE** ASEBETE IZATEA DA HORIETAKO BAT

20 urteko esperientzia eta ikerketa gaur biharko  
arreta jaso dezazun



### Createch Medical-en

etorkizuna gerturaten dizugu,  
inplanteetan egiturak egiten espezializatutako  
gure enpresa berritzailearekin



ZURE INNOVADENTAL KLINIKA EIBARREN



Bista Eder, 19 - Bajo  
20600 Eibar

Tel: **943 70 00 82**

mail: [bistaeder@innovadentalclinicas.com](mailto:bistaeder@innovadentalclinicas.com)

[www.innovadentalclinicas.com](http://www.innovadentalclinicas.com)

ZURE INNOVADENTAL KLINIKA AZPEITIAN



José de Artetxe, 5  
20730 Azpeitia

Tel: **943 02 59 55**

mail: [innovaazpeitia@innovadentalclinicas.com](mailto:innovaazpeitia@innovadentalclinicas.com)

[www.innovadentalclinicas.com](http://www.innovadentalclinicas.com)